


**Etxart
aita-semeak**
Mikel Markezezin
aritu ziren Antzuolan
KULTURA, 22-23



**Oollo, Elgetako lau
t'erdiko txapelduna**
Kadete mailan, Peñas 22-10
nagusitu zitzaion Elezkanori
KIROLA, 16

**Bouazza
El Mastati**
Torreauzoko
krosa irabazi zuen
KIROLA, 14-15



ASTELEHENKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko uztailaren 3a • 3. urtea • 108. zenbakia • 0,90 euro

Zerrajerako etxeengatik ere salatu dute Arrasateko Udala

*EBk dio
proiekturako
baldintzak La
Caixaren
proposamenaren
arabera ezarri
direla: "Ilegalki"*

Gaur bozkatuko du Udalak Zerrajerako gunean babestutako 148 etxebizitzak eraikitzeo esleipena. Ezustekorik ez badago, EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin La Caixak aurkeztutako proiektua aukeratuko du Udalak. Arrasateko Ezker Batuak irregulartasunak ikusi ditu prozesuan. Diotenez, Udalak proiektuak ezagutu ostean ezarri du puntuaketa, eta La Caixaren alde egin. 4

PUNTUAKETA
Bi proiektuak puntuatzeko
orduan balorazio
"subjektiboak" egon direla
diote EBko ordezkariek

MODU IRREGULARRA
Aurkeztutako bi proiektuen
"gutun-azalak aurrez ireki"
zituztela diote, Visesako
proiektuaren kalterako

AZKEN MUTURRERAINO
EBk dio gai horrekin,
Gelmako auzian bezala,
azken ondorioetaraino joko
dutela gauzak argitzeko

GARETIAGOA
Datuen arabera, maizterrek
ordaindu beharreko errenta
altuagoa litzateke La
Caixaren proposamenean

Bake prozesuak aztergai

Gaur hasi eta hilaren 8ra arte,
bake prozesuak aztertuko dituzte
Oñatiako unibertsitate zaharrean. Jardunaldiaren parte
hartuko dute, besteak beste, Ibarretxe lehendakariak, Javier Elzok
eta Harol Hood abadeak. 11

Udal liburutegi gehienak zabalik uztailean 27

**Bidaien eta
kontsumoaren
gaineko
erakusketa
egingo dute
Arrasaten 11**

**Maria Jose
Gilek urrezko
bi domina
ekarri ditu
Murtziatik**

Asteburuan Aguilasen (Murtzia) jokatu da beteranoen mailako Espainiako txapelketa. Eta Maria Jose Gil korrikalari arrasatearrak bere helburua betetza lortu du: urrezko bi domina eskuratu ditu, 1.500 eta 5.000 metroko lasterketetan garaipena lortu ondoren. 19



JOSETXO ARANTZABAL

JAIAK IZAN DIRA EKITALDIRIK NABARMENENA ASTEBURUAN

Eskoriatzan, Elgetan eta Aramaion herriko jai nagusiak ospatu dituzte asteburuan. Gainera, Aramaion gaur, astelehena, ospatuko dute azkeneko jaieguna. Besteak beste, Txan Magoa egongo da eta baita DJ festa txosnetan ere. Aste bukaeran ikusitako artean, aipatzeko da Elgetako koadrila batek zapatau egindako zezenketaren parodia (irudian). Herritarrek bete egin zuten inprobisatutako plaza. 7-9

GEUREAN

- Antzuolan, hirigintza proiektuen erakusketa zabalduko dute gaur | 11
- Aldundiko ordezkarien Bergarako igerilekuko lanak bisitatuko dituzte gaur | 11



Patricia Rodriguez
La Habana Viejako
birgaitze lanen
arduradunarekin
berba egin dugu | 4

EAE-KO LURZORUAREN LEGEA

LURZORUAREN LEGEA | BARIKUAN ONARTU ZUEN EUSKO LEGBILTZARRAK, HIRUKOAREN ETA PSE-EE ETA ARALARREN ALDEKO BOTOEKIN

Irailean sartuko da indarrean EAeko lehenengo Lurzoruaren Legea

Ezker Abertzaleak eta PPk kontrako jarrera berretsi zuten, nork bere argudioekin

Ibarrean galdetutako alkateek begi onez ikusten dute legea, "udalen autonomia handitzen" duelako

Monika Belastegi

Barikuau, Eusko Legebiltzarren osoko bilkura luze baten ondoren onartu zuten Euskal Autonomia Erkidegoak duen lehen-dabiziko Lurzoruaren Legea. EAJk, EAk eta Ezker Batuak osatzen duten hirukoak PSE-EEren eta Aralarren babesia izan zuen legea aurrera ateratzeko. Era berean, EABk eta PPk berretsi egin zuten legearen kontrako jarrera.

Hilabetetako tramitea eta ikamika ugari eragin ditu legeak. Azkenean, funtsezkoak izan dira Eudelekin eta PSE-EErekin lortutako akordioak legea aurrera ateratzeko eta PPren eta Ezker Abertzalearen ekarpenak albara lagatzeko. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok ere proiektuaren tramitazioa "zaila" izan dela esan zuen egubakoitzean, "gainditu behar izan diren oztopoengatik". Horregatik pozik azaldu zen onarpenarekin eta esan zuen "espekulazioaren kontrako tresna" izango dela. Madrazoren kalkuluen arabera, 120.000 etxebizitza berri erabilgarri izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek hamar urteko epean, eta hori izango da, Madrazoren esanetan, Lurzoruaren Legearen eragin nabar-

menetako bat. Legeari esker, "azkenean, gazteek eta gainerako herritarrek etxebizitza duina iza-teko eskubidea gauzatu ahal izango dute".

ALDEKO BOTA

Legeari aldeko bota eman dioten artean, Jesus Loza sozia-

lista pozik azaldu zen, "behingoz horren beharrezko den legea izateagatik". Aralar taldeko Aintzane Ezenarrok esan zuen euren kezka nagusi gehienena erantzun positiboa jaso duela legeak eta "benetan" uste dutela "iraunkortasuna bermatzeko eta espekulazioaren aurrean neurriak hartzeko lege on eta eraginkor baten aurrean gaudela".

EAJko legebiltzarkide Juan Antonio Arteta-Araunabeñak EABren emendakinak "merkantilistak eta jasangaitzak" direla azpimarratu zuen eta EA alderdiko bozaramaile Juan Porresek, berriz, PPk eta EABk adosteko borondaterik ez dutela izan kritikatu zuen eta "akordiotik kampo geratzea erabakita zutela", gehitu zuen.

KONTRAKO IRITZIAK

Barikuko eztabaidan legeari ezetz esateko orain arte erabili dituzten argudioak berretsi zituz-

Ezker Abertzaleak legearen izaera neoliberala kritikatu du

Aralarrek uste du espekulazioaren aurrean neurriak hartzeko lege on eta eraginkorra dela

ten PPk eta Ezker Abertzaleak. PPko Andoni Danboreneak, gainera, esan zuen euren esku dagoen guztia egingo dutela "legea posible den instantzia guztietaen errekurritzeko".

Julian Martinezek defendatu zuen barikuau EABk legeari oso-tasunean egindako emendakina. Orain arte egindako kritikak berretsi egin zituen "duen izaera neoliberalarenagatik" eta "lehentasuna, etengabe etxeak eraikitzea delako, gutxi batzuk negozio borobila egin dezaten". Eskubidea dena, "luxu" bilakatu dela ere esan zuen.

Etxebizitza Guziontzat plataformak ere protesta egin zuen Legebiltzarraren atarian, etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzen duen politika eskatuz.



Lurzoru urbanizagarrien %75 eta lurzoru urbanoen %40 babestutako etxeak eraikitzea bideratuko dira 3.000 biztanletik gorako herriean.

Hilabetetako tramitea eta ikamika ugari eragin dituen legea izan da

Madrazo Etxebizitza sailburuare ustez, "espekulazioaren kontrako tresna" da

EAE-KO LURZORUAREN LEGEA

Lege berriaren berritasunak

• BABESTUTAKO ETXEBIZITZAK

Lurzoru urbanizagarrien %75 eta lurzoru urbanoen %40 babestutako etxeak eraikitzeko bideratuko dira. Dena den, babestutako etxebizitzaren kategorian batzen dituzte alokairu sozialak, babes ofizialeko etxeak zein tasatutakoak (Jaurlitzarenak eta udalarenak). Araua 3.000 biztanletik gora dituzten herriean ezarriko da.

Babes ofizialeko etxeen batez besteko salneurria 117.700 euro izango da, garajea eta trasteleku duen 80 metro koadroko etxe batengatik; udalek bultzatutako tasatutako etxeen, 200.000 euro eta alokairuzkoen kasuan, hileko, 180-200 euro artean ordainduko da. Bestalde, urtebetetze erabili ez diren edo ohiko bizileku gisa erabiltzen ez diren babestutako eta tasatutako etxeak desjabetzeko aukera dago.

• URBANIZATZEKO TRESNAK

Udalek, lehiaketa publiko bidez, herriaren edo hiriaren urbanizatzeko prozesus esleitu ahalko dute. Agente urbanizatzaileok urbanizatzeko eta lursailak partzelatzeko eginkizuna izango dute. Lurzoru publikoaren zozketak debekatu egiten diu legeak.

• UDALA ETA FORU ALDUNDIAK


7.000 biztanletik gorako udalek Hiria Antolatzeko Plan Orokorra landu eta onartu ahalko dute. 3.000tik gorakoek, Zatikakoa. Udalek onartutako planak EAEko Batzordeak aztertuko ditu. Aldundiek iritzia emateko aukera izango dute.

• HIRI PLANGINTZARAKO BATZORDE

AHOLKU EMAILEA

7.000 biztanletik gorako udalek osatu beharko dute. Agintariez gain, gizarte eragile eta talde ekologistek ere osatuko dute. Ez du erabakitzeko eskumenik izango.

• IBARREKO ALKATEEK DIOTE...



VICTORIANO GALLASTEGI I
BERGARAKO ALKATEA

"Udalendako albiste ona dela uste dut, hain justu potentziatu egiten duelako udalen autonomia"

"Uste dut udalendako albiste ona dela, hain justu udalen autonomia potentziatu egiten duelako. Udalak nagusitxoak gara eta badakigu zein planifikazio egin behar dugun herrian plan orokor bat onartzeko, beti ere kontuan izanda helburua dela herria hobetzea. Hala, positibotzat jotzen dut legea.

Bestalde, Bergarako Udalaren kasuan, arau subsidiarioetan gartzeko dugunaren harira, argi dauka gu finkatuko dugula lege berriaren arabera. Udaletxeetan plan orokorrak ondo egiteko interesik handiena Udalak berak du, nahiz eta orain arte Aldundiaren kontrola izan. Aspaldi gabiltza autonomia handiagoa eskatzen, ez bakarrik gai honetan, beste batzueta ere bai. Nik uste dut legea aurrera urratsa dela".



LOURDES IDOIAGA I
OÑATIKO ALKATEA

"Beste autonomia erkidego batzuendako ona izan bada, guretzat ez du zertan kontrakoa izan"

"Euskal Autonomia Erkidegoa azkena izan da halako legea izaten. Hori horrela, gainerako guztien esperientzia ikusita etorri da eta ongi eitorria izan dadi. Orain udaletxeen hori kudeatzen ikasi beharko dugu. Bestalde, 7.000 biztanletik gorako herriei autonomia handiagoa ematen die, eta ni beti egon naiz autonomiaren alde, gobernatzezko gai izango garelako iritzia daukat. Nolanahe ere, orain arte ere, planeamenduen proposamena udalarena izan da bere arau propioekin. Nahiz eta gero, bere gainetik zaintza egin izan duen Foru Aldundiak.

Laburbilduz uste dut udalen autonomia gehitzen duen heinean onuragarria dela eta beste batzuendako ona izan bada ez duela zertan guretzat kontrakoa izan".



JOSE ANGEL ZABALO I
ANTZUOLAKO ALKATEA

"Lurrik jan gabe, hutsik dauden etxebizitzei etekina ateratzea da Antzuolan daukagun erronka"

"Eragina ezberdina izango da gurea bezalako 2.000 biztanleko herri txikien kasuan. Foru Aldunditik ikuskatze handiagoa izango dugu herri txikiok eta ez besteek izango duten autonomia. Lege honek herri txikiok ertzetik ukitzenten gaitzutxela esan daiteke. Antzuolan behar duguna da arauak baino alde zaharraen Birgaitze Plan on bat. Dagoeneko eginda dago, eta Aldundiak onartzeko zain gaude. Antzuolan eraikigarri diren lurren kasuan ia bukatuta daude. Hori horrela, gure eginkizuna birgaitzean zentratu behar da. Ehun bat etxe badiar hutsik herrian eta horiei etekina ateratzen jarri behar ditugu indarrak, lurrik jan gabe. Gure erronka da etxe hutsak suspertza, alde zaharra birgaitzea. Argi daukat nondik jo behar dugun lege berriaren aurrean".

MIREIA UNAMUNO | EHAK-REN LEGBILTZARREKO AHOULKULARIA

"Hirigintza erabiltzen da udalen aurrekontua finantzatzeko"

M.B.

Mireia Unamuno antzuarra EHAKren aholkularia da Legebiltzarrean. Legearen kontrako jarrera eta argudioak azaldu dizkigu.

Osotasunean egindiozue eman-dakina legeari. Zergatik?

Legea hartu genuenean salatu genuen lehen gauza prozedura izan zen. Lege berbera aurkeztu zen aurreko legegintzaldian eta garai haritan ezin izan zuen aurrera egin adostasun faltagatik edukian, bereziki. Hala, nola aurkezten da berriz lege bera aurretik eragileekin berba egin barik?

Beste arrazoi bat da legeak proposatzen zuen ereduarekin ez gentozelako bat; ez zuelako ereduaren aldatetik proposatzen. Argi ikusi dugu azken 25 urteotan hirigintza eta etxebizitza arazoarekin zer gertatu den eta lege berriak ez du birplan-

teatzen ereduaren birraldaketa.

Legeak printzipio orokorrean dio iraunkortasuna defendatzen duela eta bereziki etxebizitza duin baten eskubidea, partehartzea... bada, legearen garapenean printzipio horiek ez dira bermatzenten.

Espekulazioari aurre egiteko modua dela diote.

Guk ez dugu ikusten planteatzen dituen neurriekin espekulazioa ekidingo denik. Izan ere, aurreikusten dena lege berri honetan da eraikiztea, eraikitza eta eraikiztea. Hori da ildo nagusia eta gu ez gaude ados.

Legearen muina etxebizitzada?

Ez. Diskurtso orokorra etxebizitzen kontuaren bueltan ibili da, baina lege honen muina ez da etxebizitza, hirigintza eredua, baizik. Eta legearen hirigintza ereduak ez du bermatzenten eskubidea. **Nolako beharko litzake bermatzeko?**

Espekulazioa zergatik dago? Lurrik duen kutsu merkantilistarengatik. Eta ikuspuntua beste bat izan behar da, hau da, lurra merkatutik atera egin behar da. **Horrenbeste eraiki beharrean, hutsik dauden etxeen irtenbiderik ematen ez zaiela ere salatu duzue.**

EAEn 150.000 etxe huts daude. Hortaz, iraunkortasuna bultzatzea bada kontua, bada, goazen neurriak hartza horiek merkaturatzeko eta ez soilik eraikitzeko. Populazioa gutxitzen ari da, hortaz, zergatik ari gara hainbeste etxe eraikitzetan? Hutsik egoteko. Horren inguruko hausnarketa falta da. **Zergatik da horrela?**



Mireia Unamuno.

Udalen finantzazioa da kontua. Hainbat konpetentzia hartzen aridira baina beste aldetik diru iturriak murrizten ari dira, hortaz, hirigintza erabiltzen dute aurrekontuak finantzatzeko. Guk, gure aldetik, autonomia munizipala defendatzen dugu, baina marko antolatu baten barruan, eta gaur egun ez du existitzen. Hala, ikusita gaur egun zertarako erabiltzen den hirigintza udaletan-Arrasateko adibidea hor dago-, oso arriskutsua iruditzen zaigu. Gainera, leku guztietan jarraitzen den ere dua da hori.

Eraiki eta eraiki dihardugu, baina eraikitzen den guztia beharrezko da?



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Habana Zaharreko berpizte planen arduradun nagusia da Patricia Rodriguez. Hogeit urtean, krisi ekonomikoa gainditu eta baztertutako

gunea zena, bizitza eta jardueraz betetako espazio bilakatzea lortu dute, hirigintzako planak balio sozial eta kulturalekin uztartuta.

PATRICIA RODRIGUEZ | ARKITEKTO KUBATARRA

"Hirigintzari beharrezko kultur elementuak ematen dizkiote biztanleek"

Jon Berezibar

Eraberrituko den gunean, inbertitzen den hirigintza defendatzentzu duzue. Zertan datza ideia hori?

Gure herriko ekonomiak une latzak bizi zituen 90eko hamarkadan bloke sozialistaren erorketarekin, eta krisian murgildu ginen. Orduan abiarazita zegoen prozesuari jarraipena emateko autofinantzaketaren aldeko hautua egin genuen. Hala ere, guk erantzun integrala bilatzen genuen. Horrek esan gura du prozesuan sektore askok esku hartu behar dutela, biztanleriatik hasita. Hain zuzen, berez gune horretan bizi izateko eskubidea izateaz gain, hirigintzari oinarritzkoak zaizkion kultur elementuak ematen dizkiote. Guztiak nahi duguna Habana Zahar zirrugarri eta bizitzaz gainezka dagoen hori da. Enpresa-sistema bat eratu zen. Hala, turismoa, hirugarren sektorea eta bestelakoak indartzen dira.

Birmoldaketa hartzan bertako biztanleekin egin zenuten lan?

Plana hasi zenetik 11.000 lanpostu sortu da, batez ere eraikuntzarekin eta zaharberritzarekin zerikusia dutenak edo turismoarekin edo merkatari-zarekin, gehienak hango biztanleentzat izan direnak, tokiko ekonomia berpiztuta. Izan ere, ekonomia garatu da eta eskola, osasun etxeak, kultura-rako eraikinak eta gutxituendako zerbitzuak antolatu dira. Proiektuari izaera sozialagoa ematen dio horrek.

Hasiera bateko helburu hainak betetzea lortu duzue?

1981. urte inguruan, lehen zaharberritze lanei ekin zitzaienean, auzoak galdu zuen garai bateko sona berreskuratzea zen helburua. Kultur ondareareko mezenasgo joera zegoen orduan eta, poliki-poliki, ezaugarri sozialak bereganatzen joan zen egitasmoa, ekonomikoekin bat. Ikuazmoldea aberasten joan zen apurka, hasieran kulturala zena helburu sozialekin aberastu zen eta hori ekonomikoki garatzen saiatu ginen. Orekan eutsi beharreko hiru eragileak liratuke horiek. Gune historikoak berpizteko, kultur ekitaldiak eraikuntza garrantzitsu horietara eraman behar dira. Plataforma hori dagoenean erakargarri bihurtzen da lekua inbertsioari dagokionez: zerbitzu turistikoak, gastronomia, ostatuak... Horrek



Sabino Arana Elkargoak gonbidatuta izan zen Bergaran Patricia.

J. B.

"Gune historikoak berpizteko kultura hara eraman behar da, eta horrek erakartzen du inbertsioa gero"

"Bilboko birmoldaketa industrialarekin, hiritarrek gutxienez espazio publikoak eskuratu dituzte"

sadarrean gertatu dena da garai bateko ibaiko jarduera industrialak aisiajdirako eta zerbitzuetarako berrerabilo direla eta hiriaren motor bilakatu. Oinarri ekonomikoa ere aldatu da, zerbitzuetara gehiago joaz. Gaia iskanbilatsua da, modu bateko lanpostuak galdu egiten direlako eta bestelako batzuk sortu. Hala ere, hirigintza-operazio moduan Bilbok irabazi egin dueña iruditzen zait, espazio publikoetan eta zerbitzuetan bereziki. Egia da gehien garatuko dena alor pribatua izango dela, baina zelanbait eragin du interes publikoen ere.

Alde zaharren berritzea "ardura nazional" moduan ulertzten duzu la ere badiozu.

Hiria tokiko kulturari modu bereiztezinean dago lotuta, nazio bat dela, eskuinalde bat dela edota probintzia bat dela. Klima, jendearen izaera... Guztia baldintzatzen du. Hiria gizarte baten eta kultura baten adierazpenik konplexuena izatera heltzen da. Belaunaldiz belaunaldi eraikuntzako ondarearen defentsa ezinbesteko da herri batentzat.



JOSETXO ARANTZABAL

70 bat aramaioar batu zen elkarretaratzean.

Aramaion ere Ibaetako dokumentuarekin bat

Presoen eskubideak berma daitezela eskatzeko elkarretaratzea egin zuten barikuan

M.B.

Barikuan, hileko azken egubakoitzero bezala, presoen eskubideak errespetatzearen aldeko bilkurak egin ziren Euskal Herriko herri askotan. Gurean ere ia herri gehienetan egin zituzten bilkurok; Aramaion, esaterako, 70 bat lagun batu ziren eta Ibaetako dokumentuaren oinarriarekin bat eginet honakoa exijitu zuten euren

herriko Jon Agirre eta Juan Mari Azkargorta presoendako zein gainerako guztiendako: tratu duin eta begirunezko jasotzeko eskubidea, osasun eskubidea, komunikazio eskubidea, hizkuntza eskubidea, ama eta aitatasun eskubidea, askatasunerako eskubidea eta kolektibo gisa Euskal Herrian eta elkarrekin bizi izateko eskubidea.

ATXIKIMENDU UGARI

Aramaioko presoen aldeko taldearen esanetan, herriko zazpi kirol eta kultura elkartea, 12 auzo alkate eta herri eskolako 13 irakasle atxiki zaizkio Ibaetako dokumentuari dagoeneko. Bada, atxikimendu gehiago batzen jarraituko dutela gehitu dute.

MUk graduondoko zazpi master ofizial eskainiko ditu datorren ikasturtean

%75ean hazi da graduondoko ikasle kopurua 2000-2001 ikasturteetik hona, 245etik 429ra

Goreti Elortza

Datorren ikasturteari begira MUk zazpi master berri ditu bere graduondoko eskaintzan. Master horiek, lau doktoretza ofizialekin batera, unibertsitateko lau graduondoko programen osagarri izango dira. Ingeniaritza, enpresaren gestio aurreratua, hezkuntza eta gizarte ekonomia dira programa ofizial horiek.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak apirilean onartu zituen MUk graduondoko lehen lau programa ofizialak. Europako Sisteman egokitze-prozesutik sortutako progra-

mak dira horiek. Beraz, Boloniako Prozesuaren inguruan Europako unibertsitate agintariekin emandako zehaztasunekin bat datozen masterrak izango dira guztiak.

MUk graduondoko ikasketak tituludun gazteen zein jardunean dabiltzan profesionales espezializazio eta garapenari zuzendutakoak dira. Era horretan, enpresa eta hezkuntzarekin erlazionatutako modelo eta joera berrien ezagutza bideratzea dute helburu.

ESKAINTZA BERRIA

2000-2001 ikasturteetik egungo ikasturteria bitartean %75ean hazi da graduondoko ikasle kopurua, 245 ikasle izatetik 429 izatera, hain justu.

Horrela, datorren ikasturteko eskaintza lau doktoretzak eta 25 master eta aditu tituluk osatuko dute. Horietatik 18 berezko tituludunak izango dira eta gainerako zazpiak, ordea, ofizialak.



Volkswagen Caddy



Volkswagen Kombi



Volkswagen LT



Aire-poltsa



Hagunak (llantak)



Irrati bidezko
nabigazio sistema



ESP



Ibilgailu Komertzialak



UDALAITZ S.L.

Gipuzkoa etorbidea 36 • 20500 • ARRASATE
Tel: 943 71 18 70 Faxa: 943 71 18 71



Babes ofizialeko 148 etxebizitza gehiago egingo dira Gelmako gunean proiektu berriarekin.

JON BEREZIBAR

EB: "Zerrajerako babestutako etxeen lanak esleitzeko modua ilegal da"

Udalak modu irregularrean Visesaren proposamenaren aurka egin duela diote, "herritarrentzat mesedegarriago den arren"

Jon Berezibar

Zerrajerako gunean eraiki gura diren babes ofizialeko 148 etxebizitzen eraikuntzaren esleipenean "berriz ere" irregularitasunak egon direla agertu zuen barikuau Ezker Batuak, prentsurrekoan. Are gehiago, esleipen-prozedura legez kampokotzat jo zuen Joseba Ugalde. Hark azaldu zuenez, Udalak puntuazio sistema "subjektibo" baten bidez puntu gehiago eman dizkio La Caixa aurkeztutako proiektuari, Visesak prestatutakoaren kalterako. Ugalde azaldu zuenez, Zerrajerako kasuan "La Caixa eta Visesaren proposamenak lehenengo ezagutu eta ostean ezarrri ziren puntuaketarako baldintzak", eta horrela Udalak La Caixako proposamenaren meseztetan egin duela salatu zuten.

"FABORATZE ULERGAITZAK"

Ugalde ere gehitu zuen kontratazio mahaiko teknikari batek gertatutakoa onartu zuela, baina bazekitela "epaitegiataro joz gero, epaia bost urtera etorriko litzatekeela, eta orduan atzera egitea ezinezkoa izango zen hala ere".

Bi proposamenak puntuatzeko orduan egon diren desorekak azpimarratu zituzten Joseba Ugalde eta Ander Rodriguezek. Hainbat aspekturen artean, Visesaren

proposamenak errenta txikiagoa aurreikusten du maizterrarentzat eta etxeak La Caixa baino ekipamendu gehiagorekin emango lituzke, garaje gehiagorekin eta trastelekuarekin, teilatuan ortuekin eta energia aurrezteko teknologiarekin. EBk agertu zuenez, "maizterrek garestiago ordainduko dute".

Ugalde "burla" moduan ulerzten du, "galdetutakoei erantzun

bakarra ere jaso" ez dutelako. Era berean, gai horrekin "ahalik eta urrunen" joko dutela esan zuten, Gelmako aferan bezala. EB-ak prentsa ohar baten bitartez azaldu duenez, azken gai horrekin Hirigintza Delituen Fiskaliara jo dute dagoeneko.

Esleipena erabakitzeko osoko bilkura gaur izango da, goizeko bederatzietan, eta bertan ere erabakiko dira Gelmako tira-birek eragindako aldaketak. Hala nola: Tokiko Gobernu Batzarreko kideen aldaketa eta Ines Aldaik EAJ udal-taldea utziko duela eta talde mistoa eratuko duela jakinaraziko du.

Krisia onbideratzeko alderdien mahaia eskatu dute EBk eta PSEk

Zerrajera gunean eraikiko diren babes ofizialeko etxeen proiektuaren esleipenaren salaketek aurretik goriorian zegoen auzia are gehiago piztu dute. Gaur bozkatuko da esleipena osoko bilkuran, eta EAJ, EA eta PSE-ren aldeko botoekin, La Caixa proiektu polemikoak aurrera egingo luke. Proiektu horrek eta hirigintza alorreko ustezko eskandaluek alderdien arteko adierazpen andana eragin dute. Modu ofizialean euren jarraia aditzera ematen azkenak sozialistak izan dira. Prentsa ohar baten, alderdien mahaiaaren aldeko agertu da Paco Gartzia, ez du-eta "ulertzten aurrerantzean Inazio Lakuntzak alkate moduan jarraitzea". Ezker Batua-Berdeak alderdikoek ere mahaiaaren formula planteatzen dute, baina bakarrik "hirigintzari dagozkion gaiez hitz egin eta hiritarren esku-hartzea bermatzeko", Bai Alderdi Popularrak zein aipatutako bi alderdiek Lakuntzak kargua uztea nahi dute. EAk, berriz, 15 egunean konponbiderik ez badago gobernuak utziko du.

Debagoiendar ugari batu ziren Gaztetxe Egunean

Goreti Elortza

Eteon ospatu zuten II. Gaztetxe Eguna oñatiarrek. Goizean triki-bertsotz poteoa egin zuten eta jarraian joko batzuk egin zituzten Larraña auzoko futbol zelaian, Eteo atzeldean. Aulkien jokoa, zapirrena eta beste hainbat joko-rekin ederto pasa zuten goiza.

Ondoren, bazkaria egin zuten Eteoko pilotalekuaren. 180 pertsona inguru batu ziren eta oso giro onean baz-



Txantrea auzoko Banda Batxoki Eteoko kontzertuan.

JOSETXO ARANTZABAL

Frantziako eskulangile onenak gurean izan dira

M.B.

Frantziako Eskulangile One-nak elkarteko ehun bat kide izan genituen barikuaren gurean, Bergarako Miguel Altuna institutua bisitatzen izan ziren. Elkarteko ehun bat kide etorri ziren. Institutuko arduradunek egin zieten harrera, eta, eskolaren nondik norakoak azaltzeaz gain, instalazioak ere erakutsi zizkieten. Handik Donostiarra joan ziren. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako agintariekin, Ibarretxe lehendakaria tarteko, hitzordua zuten Igeldon.



GORETI ELORTZA
Miguel Altuna institutuaren nondik norakoak azaldu zizkieten bisitariei.

JAIAK DEBAGOIENEAN

SAN PEDROAK ESKORIATZAN | HERRITARREN PARTAIDETZAREKIN GIROTUTAKO JAIAK

Euskal Jaiaren giroan festen azken txanpa egin dute asteburuan

Zapatuko Euskal Jaia izan da aurten ere egunik girotsuena goizean hasi eta gauera arte

Egubakoitzean, baina, haurrak izan ziren jaun eta jabe, pailazoekin eta arratsaldeko danborradarekin

Jon Berezibar

Zapatuko Euskal Jaiarekin esan zieten agur San Pedroei eskoriatzarrek. Eguaztenean hasi eta hilaren lehenera arte jaien giro bikainean murgilduta ibili dira eskoriatzarrak eta ekintzak izandako erantzuna ere ona izan da.

Asteburuan haurrak izan dira protagonistak hein handi baten. Egubakoitzean, herria eurendako hartu eta danborrada egin zuten. Aurretik, Eskoriatzan dagoeneko ia herrikoak diren Pirritx eta Porrotxen bisita izan zuten. Goraino bete zuten haurrek plaza.

EUSKAL JAIA GIRO ONA

San Pedroek zapatuan esan zuten agur Euskal Jaiarekin eta giroa orduan ere apartekoa izan zen. Goizean goiz hasi ziren txistula-

Zapatuan Gorosarri dantza taldeko beteranoek saio berezia egin zuten

Suzko errubera musical deigarriek jendetza erakarri zuten

riak ohean nagitura geratutako ei dei egiten. Ondoren, herriko trikitilariek hartu zuten lekuak. Haien musikarekin eta plazan ipinitako sagardo-kupel eta talogileekin ez zen eguzkia bakarrak izan giroa berotu zuena.



JOSETXO ARANTZABAL

Dantza saio berezia egin zuten zapatuan Euskal Jaian.

Dantza taldeekin hitzordua zetorren hurrena. Lehenengo gazte- txoenek dantzatu zuten eta ondoren emanaldi berezia egon zen. Izan ere, Gorosarri dantza taldeko lau belaunalditako kideek saio berezia egin zuten eta Ingurutxo

dantzatu zuten, lehengo denboraren oroigarri. Behin amaituta, herri bazkaria egin zuten Gorosarrin.

Gauean erromeria-zaleek Tapia eta Leturia izan zituzten herriko plazan eta doinu gogo-

rragoek Unibertsitateko aparkalekuaren izan zuten lekua punk kontzertuarekin: La Broma de Satan, Katapunk, Kaos Urbano eta Taquikardia taldeek jo zuten, hain zuzen ere. Erantzun ona izan zuten emanaldi biek zapatuan.

• GIROAK ONGI EUTSI ZUEN ASTEBURURA ARTE



HAURREN DANBORRADA. Herriko txikienek danbor eta kupelak astintzeako aukera apartekoa izan zuten egubakoitz arratsaldean. Pilotalekutik irten eta txintxo-txintxo joan ziren plazaraino herriko neska-mutikoak, jeneral eta zuzendarien atzetik.

PRESO ETA ERREFUXIATUEN ALDE. Txaranga batek lagunduta euskal preso, errefuxiatu eta iheslarien aldeko manifestazioa egin zuten zapatu arratsaldean. Haien eskubideak errespetatzea eskatu zuten manifestazio-kalejira egiten zebiltzala.

Suzko erruberak musikarekin
Eguenean musikarekin lagundutako suzko erruberak egon ziren. Ekitaldi deigarria izan zen hura eta aurtengo nobedadeak ez zuen hutsik egin. Polita izan zen asmakizuna.

Nagusien danborrada
Iaz baino konpainia bat gutxiago egon da eguneko nagusien danborradan. Partaidetza txikiago horrek, baina, ez zion inondik inora sortutako giro onari kalterik egin.

FERIXA NAGUSIA, ELGETAN | ATZO BUKATU ZIREN, MARKELIÑEK PILOTALEKUAN EGINDAKO 'CARBON CLUB' ANTZEZLANAREKIN

Arrakasta handien herritarrek antolatutako zezenketak izan zuen

Udal ordezkarien herritarren parte-hartza azpimarratu dute

M.B.

El Niño de la Txapela, El Concejalillo, El Rubito de Salvador eta Alex de Miren osatu zuten zapatu arratsaldean Elgetako plazaan egindako zezenketako kartela. Plaza lepo zegoen; izan ere, 25 urtean behin egingo dute zezenketa Elgetan, eta nola galdu!

Herriko lagun talde batetik antolatu zuen zezenketaren parodia. Ez zen detaile bat bera ere falta izan eta jendeak ezin hobeto pasatu zuen herriko ezagunak toreatzaile, guardia zibil, pikadore, mediku, aguazil, manola... paperean ikusita.

Duela 25 urte egin zuen lehenengo herriko koadrila horrek -20 bat lagun-parodia eta 25 urtean bueltan berriz egitea otu zitzaien. Debako bandaren eta Goritxo ganadutegiaren laguntza izan zuten horretan guztian. Hala, taldeko kide zuten Koldeo Osorri eskaini zioten arratsaldeko lehen zezena.

PAELLA, ASTO LASTERKETA ETA DANBORRADA

Zezenketa gain, beste hainbat ekitaldi egon da Elgetako Ferixa Nagusian. Giroa polita izan da eta udal arduradunek herritarren parte-hartza azpimarratu nahi izan dute.

Urtero bezala, oso polita izan zen asto lasterketa. Lau lagunek jardun zuten lehian eta lehenengo saria eroan zuen Mikel Berezinagak. Horrekin batera, aipatzeko da zapatu gauean egin zuten danborrada. Aurtengoan hainbat berrikuntza izan ditu, gainera: batetik, kapitain berriak, Jose Antonio Urizarrek, gidatu zituen kupel eta danbor jotzaileak, eta bestetik, pieza berria jo zuten, Pantxika izenekoa.

IRIARTE

Umeen
denda



Helduen
lentzeria

Durana 8

Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta



'ERREMENTARIKO AHIZPAK'. Barikuan, erretiratuen egunean omenaldia jaso zuten Maria Luisa eta Maria Angeles *errementariko ahizpek*. Urte luzez oso jostun onak izandakoak izan dira, eta euren ibilbidea saritu dute aurten Jai batzordekoek. Zorionak, bie!



PUNTAKO TOREATZAILEAK. Jardineru izenekoa (618 kilo) izan zen arratsaldeko lehenengo zezena. Alex de Miren toreatzaileak hil zuen. Berak eroan zituen Elgetako plazako ohore handienak. Herritarrek gustura ikusi zuten herriko lagun koadrilak egindako antzerkia.



DAVID I ELGETA

"Zezenketaarena mundiala iruditu zait. Gustura egin dugu barre", esan zigun Davidek. Gainera, horixe izan zen jaietako ekitaldiatik gehien gustatu zitzaina.



PELLO I ELGETA

"Herritar talde batetik antolatu du zezenketa eta uste dut horrek grazia berezia eman diola zezenketari", esan zigun. Zapatuko paella jana ere gustuko izan zuela azaldu zigun.



PAELLA ERRALDOIA. Jaietako klasikoetako bat da. Zapatuan egin zuten eta paella erraldoia izan arren -400 lagunendako-, ez pentsa askorik sobratu zenik... Salvador kalean mahaiak jarri eta hantxe baziak zuten herritarrek, etxetik ekarritako eguzkitako azpian.



DANBORRADA. Oso parte-hartzailea da. 220 bat lagunek hartu zuten parte eta hainbat berrikuntzarekin azaldu zen, gainera. Batetik, kapitain berria: Jose Antonio Urizarrek hartu du Sabin Arantzetaren lekuoa. Bestetik, Pantxika izeneko doinu berria ere egin zuten.

• ZESENKETA ASKO GUSTATU ZITZAIEN HERRITARREI



DAVID I ELGETA

"Zezenketaarena mundiala iruditu zait. Gustura egin dugu barre", esan zigun Davidek. Gainera, horixe izan zen jaietako ekitaldiatik gehien gustatu zitzaina.



PELLO I ELGETA

"Herritar talde batetik antolatu du zezenketa eta uste dut horrek grazia berezia eman diola zezenketari", esan zigun. Zapatuko paella jana ere gustuko izan zuela azaldu zigun.



AITOR, PACO ETA JOSE ANGEL I ELGETA

Zapatu arratsaldean egon ginen hirukote horrekin eta ordura arteko ekitaldi guztietan hoberena zezenketa izan zela aitor-tu zuten. Pacok eta Joseanek duela 25 urtekoia ikusi zuten, baina zapatuko "askoz hobeto egin da", azpimarratu zuten, "25 urteotan toreatzaileek esperientzia handia hartu dutelako".

JAIAK DEBAGOIENEAN



JOSETXO ARANTZABAL

Lagun Artea dantza taldekoek egin zuten dantza omenaldiaren aurretik.



JOSETXO ARANTZABAL

Oldarki Gasteizko dantza taldea omendu zuten herriko plazan.

ARAMAIOKO SAN MARTINAK | GAUR OSPATUKO DUTE AZKENEKO EGUNA

Koadrilen pikea eta herri afaria San Martinak agurtzeko

*Egubakoitz eta zapatu gaueko rock
kontzertuetara jende ugari
hurbildu zen, herriko plazara*

*Oldarki dantza taldea omendu zuten
domekan plazan, Lagun Artea
taldearen alde egindako lanagatik*

Goreti Elortza

Egubakoitzean hasi ziren jaiak eta gaur arte iraungo du festak. Hala, zapatuan 12:30ean Aparraren Jaia egin zuten plazan eta oso gustura ibili ziren gaztetxoenak. 17:00etan Kurtzetan plater tiroketa egin zuten eta erretiratuen lokalean mus txapelketa jokatu zen.

OLINPIADAK ETA OMENALDIA
Txirritolipiadak egin dituzte aurren ere Txirritola euskara elkartekoek. Zapatu arratsaldean lau proba desberdin egin behar izan zituzten hiruko taldeek. Bizi-kletan, antxintxika eta beste bi joko berezi egin zituzten. Hamar taldek hartu zuten parte. Gazte-txozenen mailan (16 urte arte)

Markel Arriolabengoa, Txomin Elortza eta Igor Oianguren izan ziren txapeldunak eta nagusien mailan (17 urtetik gora) Julen Iba-be, Jokin Balantzategi eta Ander Flores gailendu ziren.

Txirritolipiadak, mus eta briska txapelketa eta Aparraren Jaia

**Oldarki dantza
taldearen laguntza
eskertu zuten
domeka eguerdian**

Domeka eguerdian Oldarki dantza taldeari omenaldia egin zioten herriko plazan. 50 urte bete dituen Gasteizko talde horrek Aramaioko dantza taldea sortzeko ahalegin berezia egin zuen. Eta hori eskertu nahi izan zieten atzoko omenaldian.

Egitaraua

ASTELEHENA 3

- **11:30:** Ume jolasak parkean.
- **12:00:** Meza Santua.
- **16:30:** Koadrilen arteko pikeak.
- **17:00:** Txan Magoa plazan.
- **19:00:** Arrasate Musikaleko kontzertua San Martin elizan eta Akelarre txaranga herrian zehar.
- **21:00:** Herri afaria.
- **22:30:** Ohiergi taldearekin erromeria plazan.
- **00:00:** DJ Festa txosnetan. Ondoren, galtzontzilo-kulero-tanga karrera eta playback txapelketa txosnetan.
- **01:00:** Txosnetan presoen aldeko brindisa.
- **06:00:** Txokolate-jana txosnetan.



JOSETXO ARANTZABAL

Txirritolipiadako lehen proba ez zen batere erraza izan.



JOSETXO ARANTZABAL

Mus eta briska txapelketak jokatu ziren erretiratuen lokalean.

▲ Omenaldia

Giro polita sortu zuen herrian Oldarki dantza taldearen omenaldi jaiak. Lagun Artea Aramaioko taldeak eta Gasteizkoak aritu ziren dantzan kaleetan zehar domekan.

▼ Egunean zehar gutxi

Herritar batzuen iritziz ez da izan jai giro handirik egunean zehar. Gaueko kontzertuetara animatu da jendea, baina egunean zehar ekintza gehiagoren beharra igarri dute zenbait herritarrek.

Bisitari zein herritarrek asteburu ahaztezin eta hunkigarria igaro zuten Oñati aldean

Extremadurako Moraleja, Gaziela eta Leongo Macotera eta Nafarroako Valtierratik etorritako jendea omendu zuten

Goreti Elortza

Zapatu eguerdian egin zieten ongietorria, udaletxean. Ondoren, herritar taldeek antolatutako bazkaria egin zuten Oñatiko hiru jatetxetan. Arratsalde partean, bisita gidatua egin zuten eta Oñatiko unibertsitatea, San Miguel Eliza eta beste zenbait leku interesgarri ezagutzeo aukera ez zuten galdu bisitariek.

19:30ean udaletxeko osoko bilkuren aretoan batu ziren guztiak ekitaldi instituzionalari hasiera emateko. Lourdes Idoiagak eskerrik eman zizkien herrira geriturutako guztiei eta herrietaiko alkateei Oñatiko oroigarriak eskaini zizkien. Kanpotik etorritakoak Oñatiko parte direla argi utzi zuen bere hitzkin. Horrelako omenaldiak egiten jarraitzeko asmoa ere agertu zuen Idoiagak. Berdin egin zuten Moraleja, Macotera eta Valtierrako alkateek. Herriaren izean hitz egin zuten herrikide-

en inguruan, eta haien ausardia goraipatu zuten, guzta utzita lanera eterri ziren- eta gehienak. Herri bakotzeko oroigarriak eman zituzten gero. Anaitze batzordeko kideak ere han izan ziren. Haiek jardun dute Udaleko ordezkariekin batera jaialdia antolatzen. Ondoren, kultura ekitaldia egin zuten plazan herri guztiak ohitura ezagutu ahal izateko. Eguna bukatzeko herri afaria egin zuten kirolegian.

ETA DOMEKAN GEHIAGO

09:30ean Arantzazura joan ziren bisitan eta eguerdian jaki dastatzea eta artisau erakustaldia egin zuten herriko plazan. Bisitarien lurrealdeetako jakiak gustura das-tatu zituzten emanaldi desberdinak ikusten. Jaia bukatzeko bazkaria egin zuten guztiak batera Soraluze jatetxean.



Hiru herrietako alkateak, Oñatiko alkatea eta Anaitze batzordeko ordezkariek osoko bilkuren aretoan.

• ZER-NOLAKO EGUNA IZAN DA GAURKO?



NIEVES ETA MANUEL | VALTIERRA

"Ederki pasa dugu eguna, Arantzazuko bidean bazkaldu dugu eta unibertsitatea eta eliza bisitatutu ditugu", zioten Valtierrako abesbatza bateko ordezkariek.



PASKI | MACOTERA

"Primeran joan da eguna, jaioterriko gauzak gogoratu ditugu, abestu... Benetan hunkigarrria izan da", esan zigun. "Nik 39 urte daramatzat Oñatin, eta gustura".

Estreinakoz igerilekua egon zen atzo San Martzialen

Urtero bezala bete egin zen San Martzial. Gutxi dira muzin egiten dioten bergararrak

Goreti Elortza

San Martzialgo erromeria ospatu zuten bergararrek atzo. Egun polita izaten da eguraldi ona eginet gero. Eta horrela izan zen atzo. Ospakizunak egubakoitzetan -San Martzial eguna- hasi baziren ere, domekan ospatu zuten jai handia.

10:00etan San Martzialera gurdia-rekin igo ziren urtero moduan eta han meza izan zuten 11:00etan. Bazkaldu baino lehen, herriko dantzariek ikuskizuna egin zuten. Herriko koadrilek, gazte zein helduagoek, mahaia jarri eta han bazkaldu zuten gus-tura. Igerileku bat ere eraman



JOSETXO ARANTZABAL

Sokatiran ere aritu ziren neska-mutil taldeak.

zuen herritar talde batek eta bat baino gehiago animatu zen bainua hartzera.

ARRATSALDEKO GIROA

Bazkalostean, herri kirolak egin zituzten. Sokatiran R Sound tal-

deak irabazi zuen mutiletan eta Bidebik nesketa. Txingatan, berriz, Ibon Garitano eta Mary eskoziarra gailendu ziren.

Iuntzean, dantzaldia hasi eta sekulako giroa sortu zen jaisteko ordua heldu zen arte.



Arruena parkean egin zuten bazkaria eta dantza saioa.

3.000 lagunetik gora batu ziren Errozioan

M.B.

Hogeitik gora elkarte eta 3.000 lagunetik gora batu ziren atzo, Arrasateko Al-Andalus elkartea antolatutako Errozioko jaian. Ohi bezala, anfitrioiek harrera egin zieten, egoitzan, kanpotik etorritako elkarteei, eta, prozesioan Ama Birjinarekin irten

aurretik, elkarteko abesbatzak salbea abestu zuen. Salbearekin batera, duela hilabete gutxi hil zen Ines Idalgo abesbatzako kidea izan zuten gogoan; baita osteko mezan ere.

Eguerdian Arruena parkean batu ziren guztiak eta urtero bezala bazkari oparoa eta jai alaia egin zuten Errozioko Ama begira zutela.

Albiste izango da

ARRASATE | DOMEKARA ARTE EGONGO DA IKUSGAI

Kontsumoaren gaineke erakusketa zabalduko dute etzi Monterronen

Etzi, eguztiena, hasi eta domekara arte Monterron jauregian kontsumoari buruzko erakusketa egongo da ikusgai. Bidaia eta garraioaren inguruko erakusketa da eta hainbat informazio egongo da; esaterako, urteko sasoi honetan horren ohikoak diren bidaiai antolatzerakoan eta kontratatzerakoan kontuan izan beharreko guztiaren gaineko informazioa egongo da.

Horrekin guztiarekin batera, garraio iraunkorrari buruzko informazioa ere jarriko dute. Erakusketaren ordutegia ohikoa izango da.

DEBAGOIENA | 14.590 ABELTZAINI ETA 1.805 NEKAZARIRI

Abeltzain eta nekazariendako laguntzak banatuko dituzte asteon

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak aste honetan Europar Batasunak abeltzainei ezarritako laguntzak emango diru. Onuradunak hauek izango dira: 3.691 ardi- eta ahuntz-azienda ekoizle; 3.923 behi ume-hazle ekoizle; 3.321 idi eta zezen ekoizle; eta 6.287 hiltzeko azienda ekoizle. Hala, 14.590 abeltzainek 17.919.000 euro jaso dute aste honetan. Era horretan errentaren galerari aurre egin nahi zaio, Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) ondorioz merkatuko prezioak behera egiten ari baitira pixkanaka. Bestalde, EAEko nekazarieei 718.197,74 euro ordainduko dizkie Jaurlaritzak belarki-laboreentzat ezarritako laguntzengatik. Onuradunak 1.805 nekazari izango dira.

OÑATI | UZTAILAREN 8RA ARTE IZANGO DIRA

Bake prozesuak aztertuko dituzte gaurtik aurrera unibertsitatean

Gaur hasi eta hilaren 8ra bitartean, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan, bake prozesuak izango dituzte aztergai. Lege Soziologia Institutuarekin elkarlanean antolatu dituzte jardunaldiak eta aztertuko dute lege soziologiak giza eskubideen mesedeetan egin ditzakeen ekarpenak. Horretarako Ipar Irlandako, Kolombiako eta Euskal herriko bake prozesuez jardungo dute gai horretan adituak direnek. Hitzaldien artean aipatzekoak dira Juan Jose Ibarretxek, lehendakariak, *Hurrengo eguna* izenburuaren lehen egunean egingo duena; bigarrenean, Deustuko unibertsitateko Javier Elzok biktima izango ditzake hizpide. Ipar Irlandako gatazkan bitartekari jardundako Harol Good apaiza ere izango da. Jardunaldiatarako ehunetik gora lagunek eman dute izena.

BERGARA | IRAILEAN ZABALDUKO DUTE IGERILEKUA

Aldundiko ordezkariek Agorrosingo lanak ikustera etorriko dira gaur

Gaur, astelehena, Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat ordezkariek etorriko dira gurera. Bergaran egiten ari diren Agorrosingo igerileku berriak ikustera etorriko dira. 2006ko irailean zabalduko dute Agorrosin berria. Hori horrela, orain arte egin dituzten lanak ikustera etorriko dira Aldundiko arduradunak. Etorriko dira, besteak beste: diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri; Fernando Tapia, Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatua; eta Gipuzkoako Kirol Zuzendari Iñaki Ugarteberu.

DEBAGOIENA | ABUZTUAREN 26RA ARTE

Zabalik dago Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketarako izenematea

Gipuzkoako Artzain Txakuren Elkartetik aditzera eman dute nez, zabalik dago Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketan izeña emateko epea. 2006ko irailaren 3an Legazpin jokatuko da txapelketa ofiziala.

Txapelketan Gipuzkoako edozein euskal artzain txakurrek har dezake parte eta bertan eta aurrez izan litzkeen kanporaketetan parte hartu nahi dutenek honako telefono honetan eman dezakete izena: 609 02 14 20 (Joxe Mari Mendizabal, elkarteko lehendakaria). Izena emateko azkeneko eguna abuztuaren 26an izango da.

Hitzorduak



ANTZUOLAKO HIRIGINTZA PROIEKTUEN ERAKUSKETA IPINI DUTE | Gaur, astelehena, zabalduko dute erakusketa udaletxean

Herriko hirigintza proiektu garrantzitsuenen gainerako erakusketa dago udaletxeo osoko bilkuren aretoan. Gaur, astelehena, da bisitatzeko lehenengo eguna. Sagastiko gizarte etxearen eta Eguzki auzoko sustapen publikoko etxebizitzen proiektuak ikusteko aukera dago hori.

Proiektu horien planoak eta infografiak daude ikusteko (irudian, Eguzki auzoko etxebizitzen infografia), eta proiektuak azaltzen dituzten ikusentzunezkoia ere.

Erakusketa zabalik egongo da udaletxeo bulego ordutegian.

ARETXABAleta |

• Garapen pertsonalerako klubean parte hartzeko

Garapen pertsonalerako eta aisiaidirako kluba osatu du Gestalt Arabak, eta Aretxabaletako kideek parte hartzeko dei egiten dute. Izenematea: 692 71 38 21.

• San Martin jaiak antolatzeko batzarra dago

San martin jaiak antolatzeko gertu dauden guztiei dei egiten diete batzarrera joateko. Gaur, astelehena, egingo dute kultura etxean, 19:00etan. Bergarako Herria Suspertzeko taldeak deitzen du.

• Gipuzkoako artzain txakurren txapelketa

2006ko irailaren 3an Legazpin jokatuko da Gipuzkoako artzain txakurren txapelketa ofiziala. Parte hartu nahi dutenek telefono honetan eman dezakete izena: 609 02 14 20 (Joxe Mari Mendizabal).

ARRASATE |

• Odol-ateratzeak egingo dituzte egunotan

Odol-ateratzeak antolatu ditu Arabako Odol Emaileen elkar-teek hilaren 4rako eta 5erako, osasun zentroan. 16:30etik 20:00etara arte egingo da odo-la emateko aukera.

• Debagoieneko abeltzainak

Bergaran batzartuko dira Debagoieneko abeltzainen elkarrekin batzar orokorra egingo du uztailaren 9an, domeka, Miguel Altunen. Lehen deialdia 11:30erako egin dute, eta bigarrena, 12:00etarako.

ELGETA |

• Erretiratuek jaialdia egingo dute Arraten hilaren 13an Uztailaren 13an, jaia izango dute Debabarreneko erretiratuek Arraten, eta Elgetakoek ere izena eman dezakete. Pedro Mari Uberarengana joan behar dute horretarako.

BERGARA |

• San Martzial jaiko mahaien eta aulkien fidantza

San Martzialen erabilitako mahaien eta aulkien fidantza jaso daiteke. Gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera arte egin daiteke hori kultura etxearen, 17:00etatik 20:00etara.

DEBAGOIENA |

• Euskal Tonbolako txartelak daude 90 tabernatan

Debagoieneko zazpi herriko 90 tabernatan ari dira saltzen Kontseiluaren Euskal Tonbolako txartelak, euro baten.

OÑATI |

• Administrazioarekin lan egiteko txartela

Izenpeko Herritarren Txartela lor daiteke KZgunean. Internet bidez administrazioekin lan egiteko eta hainbat dokumentu lortzeko aukera ematen du. Argibideak, 943 71 83 20 telefono zenbakian.

• Dendariendako Internet ikastaroak antolatu dituzte

Interneten heztekoi 20 orduko ikastaroak emango dituzte uztalean, 14:00-16:00. Bereziki dendarieie zuzenduta daude. Ordenagailua erabiltzen, Interneten nabigatzen, informazioa bilatzen... irakatsiko dute. Argibideak: 943 71 83 20.

• Igeri elkarrearen zozketa txarteletan akatsa dago

Zozketaren data ez da 2006-07-15, txarteletan agertzen den moduan, 2006-07-14 baizik.

Iritziaik



Isilpekoak

943 25 05 02

goinkaria@goienna.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Oñatiko alkatearen gutuna

Azken egun hauetan Gazte Asanbladaren aldetik uztailaren 1eko Gazte Eguna dela eta zabaltzen ari diren esamesen aurrean, Oñatiko Udalak gertakizunak nola izan diren argitu nahi du:

Oñatiko Gazte Asanbladak maiatzaren 22an eskatu zuen uztailaren 1ean Gazte Eguna ospatzeko baimena.

2006ko ekainaren 22an Gobernu Batzordeak egun horretarako baimena ematearekin batera jakinarazi zien uztailaren 1ean azpiegiturak muntatzeko materiala hartuta zegoela egun horretarako, martxoaz geroztik antolatuta zegoen Anaitze Eguna dela eta.

Bestalde, maiatzaren 25eko Gobernu Batzordeak pilotaleku zorua berritzeko lanak Construcciones Ugarteri adjudikatu zizkion, aspalditik pentsatuta zegoen moduan Korpus ostean lanok egiteko, eta Hirigintza Batzordeak, Gazte Asanbladaren eskariaren aurrean, jakinarazi zuen uztailaren 1ean obrak egiten arituko zirela pilotaleku. Horregatik proposatu genien jaia Larrañako Institutuko instalazioetan egitea.

Beraz, garbi geratzen da halabeharrez gertatu direla gauzak, baina inoiz ez Oñatiko Udalak Gazte Eguna baztertzeko edo eragoztekо asmorik izan duelako.

Honakoa ikusiz, garbi geratzen da Oñatiko Gazte Asanbladak gai honetan ez duela egia esaten.

Halaxe erantzun digute

Drogen kontsumoak
behera eginda ere,
kalamua gehiago
eta gazteagotik
kontsumitzen da.
Zergatik da hori



AINHOA MOYUA |
PREBENTZIORAKO TEKNIKARIA

Denon artean kalamua arrisku moduan ez ikustea lortu dugu. Gaizki informatu da; ez dira ikus-ten ekar ditzakeen ondorio legalak eta osasunarentzako kaltea; gero eta gazteago hasten dira kontsumitzen, uste dutelako ez dela ezer gertatzen, eta ez da hala. Min handia egin du pertzepio horrek.



ARANTZAZU LOIDI |
DROGA-MENDEKOTASUN ZERB.

Erlaxazio handia egon da kalamuan. 15 urte da hasteko batez bestekoa, umeak dira, eta kontsumoak ekartzen dizkien osasun mentaleko arazoez ez da hitz egiten. Arrisku pertzepioa txikitu egiten da eta drogen normalizazioa ez da drogak hutsalkeriatzat hartzea, inondik inora.



KAIET LASKURAIN |
SUSTAR ASOZIAZIOA

Belaunaldi eta kultura aldaketa egon dela argi dago. Marihanari dagokionez, oraingo gurasoek badakite droga gogorra ez dela eta badakite zer dagoen. Gazteei dagokienez, lortzeko erraztasun handiagoa daukate, bai ekonomikokin zein, adibidez, mafia gehiago dagoela kontuan izanda.



IÑAKI PIERRUGUES |
PSE-EE-KO ZINEGOTZIA

Gazteek kalamura jotzen dute kokainara ezin dutelako. Egia da arrisku pertzepioa aldatu egin dela, baina oraindik ere marihanaren onura terapeutikoetan sakondu beharra dago, adibidez. Gazteek marihanara jotzen dute, batez ere horrela ondo pasatzen dutelako, beste barik.

Sarean harrapatuta

Zapateroren iragarpena eta euskaldunen erabakia

Ostegunean, hilak 29, esan zuen Zapaterok Espainiako Gobernuak elkarritzeta hasiko duela ETAren batera agindu du euskal herriaren erabakia errespetatuko duela. Zapateroren iragarpenean gaine-

ko iritziak sortu dira han eta hemen; zer errespetatuko duen, zer ez, zer esan nahi duen horrekin... Goiena.net-en ere galdeku dute horren gainean eta hemen bildu ditugu webguneko iritzi batzuk.

sortu zuen alderdi bera dela Zapaterorena. Hortaz, adi ibili beharko dugu!

Arantxa / www.goienna.net

ESPERANTZAZ ENTZUN DUT ZAPATERO

Egia esan, nik esperantaz entzun nituen Zapateroren hitzak. Ezer ez baino hobeto izango da ba hori, ezta? Behintzat berba egingo dute eta hori poztekoa da. Gero gero-koak, baina aurrerapauso bat iruditzen zait.

Rober / www.goienna.net

GURE ERABAKIA ERRESPETATZEKO GARIA DA

Nik ikusi arte ez dut sinisten. Hitzak ez dute balio, baina ekintzak behar ditugu! Hitz politikak ondo geratzeko esaten ditu Zapaterok, baina mundu guztiaren aurrean ondo geratzea zaila izango zaio!

Zer esan nahi du "euskal herriaren erabakia errespetatuko duela" esaldiarenkin? Orain arte, euskaldunon hitza isiltzen eta estaltzen saiatu dira behin eta berriro. Eta orain arte ez du honek aldatzeko itxura gehiegiz eduki. Oraintxe da garaia benetan gure hitza entzun, bete eta erreseta dezaten!

Mikel / www.goienna.net

BADAKIGU ZEIN DEN GURE ERABAKIA?

Eta zein da ba, euskaldunon erabakia? Jakin izan dugu inoiz, ala? Edo, hori jakiteko modurik eduki dugu?

Zapatarietxe / www.goienna.net

ESALDIAREKIN GAUZA ASKO ESATEN DIRA

"Euskal herriaren erabakia errespetatuko duela" horrekin ze esan nahi du? Erreferendum egingo dugula? Edo bozketak errespetatuko dituela? Edo Batasuna legalizatuko duela? Egia esan, gauza asko esan daitezke esaldi horrekin eta beldurra daudat momentuan komeni zai on esanahia ez ote dion emango.

Lorea / www.goienna.net

ADI IBILI BEHARKO DUGU ERABAKIEKIN

Nik uste dut dagoeneko Espainiako Estatuko gobernuak ETAren berbetan hasita dagoela. Atzokoa PP begira egindako itxurazko keinua izango zen.

Hala ere, zalantza handiak dauzkat azkenean PSOEk benetan zer punturaino hartuko duen aintzat euskaldunon erabakia, edo are gehiago, ea euskaldunok zerbaiz erabakitzeko aukera izango dugun.

Jarrera edo "talantea" aldatu denaren itxurak ematen dituzten arren, ezin dugu ahaztu GAL

Mario / www.goienna.net

Egunkarietako harribitxiak

KONTXAKO 'LUMIERE'-AK

Parisen estreinatu zuten zinematografoa, Lumiere anaiek, 1894an. Eta handik sei hilabetera Donostiarra iritsi zen, Maria Cristina erregina eta haren segizioak han ematen zutelako uda. Ordutik hona handia da Donostiak zinemarekin duen lotura. Horren guztiaren berri jaso zuten atzo *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian.

'Noticias de Gipuzkoa'
2006-07-02



EZINEZKO MALETAK


2001eko irailaren 11ko erasoak hegazkinez egin ziren. Ordutik hona, besteak beste, Europatik AEBetarako hegaldietako bidaiai guztien datuak exijitu dituzte AEBek. Milaka pertsonai galarazi die horrek bidaiatzea. Baita euskal herritar askori ere. Herritarren datuak itsasoz bestaldeko agintariei derrigorrean eman behar izanak ezinegona eragin du Europar Batasunean. 2003an, datu horiek emateko hitzarmena sinatu zuten

itsasoaren alde bietako agintariekin, eta hitzarmena bertan behera laga du maiatzaren 30ean Europako Justizia Auzitegiak. Horrekin lotuta, Europako batzordeak baimena eskatu dio hil honetan bertan Europar Batasuneko Kontseiluari, AEBetako hitzarmena berriro negoziatzeko. Hala, hitzarmena berraztertu eta aldatu egindo dute, baina oinarria antzekoa izango da.

'Berria'
2006-07-03



Tira, tira...



Marlaska badoa, Garzon itzuliko da.

Tasio 'Gara' | 2006-VII-03

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

PALESTINA ZAURITUTA ETA BAKARTUTA

Nazioarteko boikota aipatzean badirudi munduko herriarrak direla boikot horren erantzuleak. Baino ez. Estatuak dira, gobernuak dira. Eta hori etikaz, elkartasunez eta mendebaldean aldarrikatzen diren balio askoren alde, salatzeko da guztiz.

Editoriala
2006-07-02

'Noticias de Gipuzkoa'

BELDURRAK ZERBAITERAKO BALIO BADU

Zirkulazio arautegi berria eraginkorra izateko, gaur egun dauden medioekin gauzatzeko ezenekoak diren kontrol eta inspektiona beharko lirateke. Hala, beste behin, neurriaren eraginkortasuna bitartekariengatik dago baldintzatuta.

Editoriala
2006-07-02



Zorroztalea

Zigorra, besteak

jartzea oso eginbehar itsusia dela eta datoza horretarako Ertzaintzak, edo Guardia Zibilak, edo Vatikanoko Guardia Suizoa.

Guzti honek niri umetako sasoia ekartzen dit gogora. Umeak egin behar ez zen pitokeria txoa egin eta aita eta ama sesioan. "Umeak gaizki egin du eta zigorra jarri beharko zaio bada". "Bai, andra, arrazoi guztia daukazu, zigortu egin beharko duzu". Eta umea pozik zigorra nork jarri erabaki ezin dute nean pitokeria hori hain larria ere ez dela izango eta. Nire akorduan pitokeria horiek zigor barik geratzen ziren azkenean eta erretzaileokin ere antzera gertatuko delakoan nago: bakean bizi garenetik gure etorkizuna erabakitzent nahikoa lan izango dugunez, pitokeriatxo hauek zigor barik geratuko dira.

"Eusko Jaurlaritza ere autonomia zale jarri eta, udalek ere bere autonomia behar dutela eta, tori erregaloa"

"Eta udalek horrelako ardurak ez dutela behar, Lur Zoroaren Legearen barruan solairuak banatzea gustura egingo dutela"



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

KIROLA

- Bouazza El Mastati garaile Torreuzoko IX. herri krosoan | 14-15
- Eskoriatzako 4x4 kontzentrazioan Xabier Larrea oñatiarra nagusi | 18



Markel Irizar
txirrindulari
oñatiarrarekin aritu
gara Tourrari buruz
hitz egiten | 16

TORREAUZOKO IX. KROSA



JOSEKO ARANTZABAL

KROSA | AURTEN 138 KORRIKALARIK HARTU DUTE PARTE TORREAUZON, INOIZKO PARTAIDETZA HANDIENA

Bouazza El Mastatik bigarren aldiz irabazi zuen Torreuzoko krosa

Jose Ramon Torresekin lehia polita izan zuen: helmugan lau segundoko aldea egon zen bien artean

Raquel Llamasek irabazi zuen emakumezkoen lasterketa; 26:55eko denbora egin zuen helmugan

Mireia Bikuña

Urteroko hitzordua da Torreuzoko krosa. Eta atzoko edizioaren amaieran oso pozik agertu ziren antolatzaleak: "Parte-hartzaile kopurua izan dugunik altuena izan da gaurkoa: 138 korrikalari. Gainera, punta-pun-

tako korrikalariak eterri dira. Maila handiko lasterketa izan da", aipatu ziguten sari banatarkaren hasi baino lehen.

MAROKOARRAK AURRETIK

Goizeko 11etan irteera hartu orduko hiruko talde bat egin zen lasterketa buruan: Bouazza El Mastati, iazko irabazlea, Moha-

med El Guarrah eta Jose Ramon Torres, Burgosko korrikalaria. Hasierako metroak elkarrekin egin zituzten.

Olatera Jose Ramon Torres iritsi zen lehena. Haren atzetik Marokoko bi korrikalariak zioazen. Baina itzulerakoan, Bouazza El Mastatik Jose Ramon Torres gainditu zuen. Seigarren kilometroan, gainera, probako errekorra hobetzeko denbora markatu zuen. Azkenean, baina, ez zuen Abdeslam Serroken errekorra ondu. Helmugan 23:25eko denbora egin zuen. Haren atzetik, lau segundora Jose Ramon Torres sailkatu zen.

EMAKUMEAK

Gizonezkoen lasterketan maila handiko korrikalarien parte haritu bazuten, zer esan emakumezkoen lasterketaren gainean.

Raquel Llamas, Nieves Zarza eta Rosi Talaverak parte hartu zuten, besteak beste. Guztien artean, Raquel Llamas oiaztuarra izan zen azkarrena. Lasterketa hasieratik buruan jarri eta lehena iri-

tsi zen helmugara. Eta haren atzetik, Nieves Zarza eta Rosi Talavera sailkatu ziren.

41 GAZTE

Nagusien lasterketa hasi aurrelik, 41 neska-mutiko ibili ziren lehian 2.000 metroko ibilbidean. Parte-hartzaileak hiru kategoriaren banatu zituzten: kadeteak, infantilak eta alebinak. Eta guztien artean azkarrena Elgoibarko Angel Mari Lopez izan zen. Antolatzale taldekoek eskerrak eman zizkieten urtero Elgoibar-tik etortzen den parte-hartzaile taldeari. Aurten ere gehienak Elgoibar atletismo taldeko korrikalariak ziren.

Lasterketa amaineran sariak banatu zituzten gazteen artean. Maila bakotzeko irabazleek oroi-garria jaso zuten eta gero, denen artean opariak zozketatu ziren.

138 korrikalarik hartu zuten irteera Torreuzoko krosoan

Abdeslam Serroken eta Nieves Zarzaren errekorrok ez ziren hobetu

TORREAUZOKO IX. KROSA

• TORREAUZOKO KROSA IRUDITAN



ÖÑATIKO KORRIKALARI GAZTEAK. 41 neska-mutikok parte hartu zuten gaztxozen lasterketan; kadete, infantil eta alebin mailetan. Haietatik gehienak Elgoibarko atletismo taldeko kideak ziren. Baina oñatiarrik ere egon zen Torreuzon. Bada, argazkia ateratzeko bildu genituen.

BOUAZZA EL MASTATI. Bouazza El Mastati zen lasterketa irabazteko hautagai nagusia. Eta ez zuen hutsik egin. Baina lehia polita izan zuen munduko kros txapeldun Jose Ramon Torresek. Helmugara oso parekatuta iritsi ziren, argazkian ikusten den moduan. Lau segundoko aldea egon zen bien artean.



RAQUEL LLAMAS. Emakumezkoen lasterketan mailako handiko korrikalariak bildu ziren. Azkarreña Raquel Llamas izan zen –argazkian, helmugara iristen-. Oiartzungo korrikalariak, gainera, badi ki Torreuzon irabaztea zer den, kros horretako lehen edizioan, 1998an, garaipena lortu baitzuen.

IRABAZLEAK PODIUMEAN Lasterketak amaitu ondoren sari banaketa ekitaldia egin zuten antolatzaleek. Bouzza El Mastati eta Raquel Llamas izan ziren sari potoloenak jaso zituztenak. Txapela, xanpain-kaxa, lore-sorta eta dirua jaso zituzten krosa irabazteagatik.

• HONELA IKUSI DUTE PARTE-HARTZAILEEK AURTENGOKROSA




BOUAZZA EL MASTATI |
BILBO



RAQUEL LLAMAS |
GASTEIZ



EKAITZ OSA |
ÖÑATI



ANGEL MARI LOPEZ |
ELGOIBAR

"Bigarren aldia da Torreauzora etortzen naizela. Iaz errekorren bila etorri nintzen, baina ez nuen lortu. Gaur lasterketa irabazteko asmoz etorri naiz, errekorra alde batera utzita. Beraz, helburua lortu dudala esan behar dut. 5. kilometro arte Jose Ramon Torresen atzetik joan naiz, eta gero buruan jarri naiz".

"Oso pozik nago garaipenarekin. Ibilbidea ezagutzen nuen arren, esan beharra dago oso gogorra dela. Gorabehera asko ditu eta izterrak asko nekatzen dira. Ez naiz errekorra hobetzeko asmoz etorri, baina fisikoki ongi ikusi dut nire burua eta ahalegindu egin naiz. Azkenean bada, 11 segundora geratu naiz".

"Lasterketak maila oso ona izan du. Öñatikoa izanda, ibilbidea ezagutzen nuen, baina gaur bereziki gogorra egin zait. Bero handia egin du. Korrikalarien artean komentatu dugu iaz baino bero handioaga egin duela gaur. Gustura amaitu dut egindako lanarekin. Helmugara seigarraren iritsi naiz".

Emaitzak

GIZONEZKOETAN LEHENAK

1. Bouazza El Mastati	(23:25)
2. Jose Ramon Torres	(23:29)
3. Mohamed El Guarrah	(24:10)
4. Imanol Cruz	(24:36)
5. Cipri Burcio	(24:42)
6. Ekaitz Osa	(24:42)

EMAKUMEZKOETAN LEHENAK

15. Raquel Llamas	(26:55)
25. Nieves Zarza	(28:31)
33. Rosa Talavera	(29:17)
54. Blanca Marin	(31:51)
67. Sarai Muñoz	(33:04)

BETERANOAK

2. Jose Ramon Torres	(23:29)
10. Clemente Bravo	(26:09)
18. Ramon Varela	(27:44)

DEBAGOIENDARRAK

6. Ekaitz Osa	(24:42)
11. Imanol Molinero	(26:15)
12. Asier Osinaga	(26:17)
14. Sergio Gartzia	(26:37)
18. Ramon Varela	(27:44)

KADETE MUTILAK

1. Angel Mari Lopez
2. Jon Belauste
3. Borja Diez

KADETE NESKAK

1. Maria Hernandez

INFANTIL MUTILAK

1. Jokin Bilbao
2. Mikel Boles
3. Gorka Lazcano

INFANTIL NESKAK

1. Nora Santiago
2. Otsalar Urain
3. Nerea Azpiazu

ALEBIN MUTILAK

1. Iban Belaustegi
2. Andoni Ugarte
3. Yurek Ibarguren

ALEBIN NESKAK

1. Leire Basterretxea
2. Janire Fernandez de Olano
3. Garazi Osoro



Ollori, txapela eta kopaz gain, eskopeta bat ere eman zioten.

ARANTZAZU EZKIBEL



Arkaitz Peñas txapela eta sariarekin partiduaren ostean.

ARANTZAZU EZKIBEL

ELGETA | LAU T'ERDIKO ETB KANTXA TXAPELKETA

Nagusietan Ollok eta kadete mailan Peñasek jantzi zituzten txapelak

Ozkarbi pilota sailak antolatutako txapelketako finalak jokatu ziren atzo Elgetako pilotalekuaren

Arantzazu Ezkibel

Elgetako txapelketak txapeldun berriak ditu atzo ezkerro: nagusi mailan, Ollok 11-22 irabazi zion Andoingo Gonzalez eta kadete mailan, Lizarrako Peñas 22-10 nagusitu zitzzion Elezkano-nori.

12:00etan eman zitzaien hasiera 31. txapelketako final handie. Lehenengo kadete mailako pilotariak aritu ziren. Peñas (Liza-

rra) eta Elezkano (Zaratamo) izan ziren nor baino nor gehiago. Tankera ezberdineko pilotariak dira Peñas eta Elezkano, eta hori dela-eta partidu polita ikusi zen Elgetako pilotalekuaren.

Nahiko urduri hasi zuten partidua bi pilotariekin. Lehenengo tantoak nahasiak izan ziren, baina Peñasek partiduaren erritmoa hartu zuenean markagailuan alde handia egin zuen. Hala, 22-10 nagusitu zitzzion Elezkano-nori.

nori pilotari nafarra. Iaz finalerdieta geratu bazen ere, aurten txapela etxera eramatea lortu du Arkaitz Peñasek.

OLLO ONDO ARITU ZEN

Nagusien finala Gonzálezek (Andoain) eta Ollok (Goldaraz) jokatu zuten. Elgetako pilotalekura hurbildutako jendea pilotari gipuzkoarraren alde zegoen; Oinatzen aldeko oihuak besterik ez zen entzuten Elgetan.

Baina partiduak urdin koloreko hartu zuen hasieratik. Goldarazko jokalariak partidu ona jokatu zuen; dejada politak egin zituen Josebak.

Zaleen babeska izan arren, Oinatz González ez zen fin aritu. Dejada asko txapapera joan zitzaiak zion andoaindarri. Behin eta berriz saiatu zen markagailuari buelta ematen, baina azkenean 11-22 galdu eta txapeldunordearen saria eraman zuen.

JOSEBA OLLO | GOLDARAZ

“Elgetako txapelketara lehenengoz eterri naiz”

Arantzazu Ezkibel

Joseba Ollo pilotari nafarra gustura zegoen Elgetako finalean egindako partiduarekin. Txapelketako ustekabea izan da, dudarik gabe, Goldarazko pilotari gaztea.


Nola ikusi duzu zure burua final handian?

Norberriagoko gogorra izan da. Hasiera batean nire alde jarri da partidua, baina gero, huts batzuk egin ditut. Hala ere, markagailuan aldea mantentzeko gai izan naiz eta azkenean 22 tantoa iristea lortu dut.

Ikusteko final polita izan dela uste dut. Huts batzuk izan ditugu, baina orokorrean partidu polita izan da.

Elgetako txapelketako ezusteko eman duzu.

Bai, lehenengo aldia da Elgetako txapelketara aurkezten nai-zena, eta txapela lortu dut. Gaurko finalerako Oinatz zen fabori-



Arantzazu Ezkibel

Arkaitz Peñasek uste baino zailtasun handiagoa izan zuen Elezkano mendean hartzeko; eta behin urduritasunak baretuta, joko polita eskaini zuen Lizarrakoak.

Partiduko lehenengo zatian urduri ibili zara, baina gero partidu polita jokatu duzu?

Bai, lehenengo pilotakadetan urduri samar ibili naiz, baina gero partidu polita egitea lortu dut.

Elezkanok ere partidu ona jokatu du, baina huts batzuk egin ditu eta azkenean markagailua 22-10 jarri da nire alde. Maila handiko jokalaria dela erakutsi du. Iaz finalerdieta iristea lortu zenuen eta aurten txapela irabazi duzu.

Aurtengo txapelketara gogo handiarekin eterri naiz. Iaz finalerdieta galdu nuen eta finala jokatzeko gogoarekin geratu nin-



A.E.

tzen. Aurten, finalean sartzea izan dut helburu eta finala jokatzeaz gain irabaztea ere lortu dut. Oso pozik nago txapelketa guztian egin dudan lanarekin. Kadete mailan oso partidu onak ikusi dira, maila handikoak. Profesionalaletan ikusiko zaituztegu?

Oraintik lan handia egin behar dugu profesional mailara iristeko. Onena pauso pauso joatea izango da.

Martxoaren 10ean hasi zen txapelketa

Hiru hilabete luze irauen du Elgetako lau t'erdiko txapelketak. Martxoaren 10ean eman zitzaien hasiera. Orduan, Elgetako pilotalekua obretan zegoen eta hori dela-eta Aramaion jokatu ziren partiduak.

Guztira 203 pilotari aritu dira 31. txapelketeta honetan: kadete mailako 95 eta 23 urte azpiko 108. 65 jaialdi egin dira; jaialdi bakotzko hiru partidu jokatu dira; beraz, guztira 195 partidu jokatu dira.

Gogoratu behar da profesional mailan arin diren pilotari batzuk Elgetan txapeldun izan direla, besteak beste: Eugi, Beloki Olaizola I.a eta II.a.

Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL

Bolo txapelketa. 33 jokalarik hartu zuten parte Elgetako txapelketan. Irabazlea Eibarreko Pedro Arizmendiari eta izan zen. Gazte mailako txapelketan 17 jokalari aritu ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

Gimnasia erritmikoa. Ikasturte amaierako jaialdia egin zuten zapatuan Aloña Mendiko neskek. Ekitaldian parte hartu zuten 22 gazteek opariak jaso zituzten amaieran.



JOSETXO ARANTZABAL

San Martzialera igoera. Urtzi Mugurutzak (benjamin maila), Mikel Arregik (benjamin aurrekoak) eta Mikel Asensiok (alebin) irabazi zituzten atzoko lasterketak.



LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GAURTIK AURRERA

BEHERAPENAK

GOIZEAN ERE ZABALIK

ESKORIATZA | 4X4 IBILGAILUEN KONTZENTRAZIOA

480 punturekin nagusitu zen Xabier Larrea Eskoriatzako proban

16 gidarik eman zuten izena Apotzagako probarako. Gehienak inguruko herrietakoak izan ziren

Arantzazu Ezkibel

Xabier Larrea oñatiarra nagusitu zen Apotzagana jokatutako II. 4x4 ibilgailuen kontzentrazioa. Zapatu arratsaldean eman zitzaion hasiera txapelketari eta atzo eguerdian amaitu zen. Guztira, 16 gidarik eman zuten izena txapelketan; gehienak ibarreko gidariai izan ziren. Antolatzaile taldekoek adierazi zigutenez, beste urte batzueta baino jende gutxiago etorri da aurten: "Iaz 40 gidari izan ziren, baina aurten, beste proba bat egun berean egokitzen denez, jende gutxiago etorri da Eskoriatzara". Hala ere, Apotzagara hurbildutako gidarien maila oso ona zela adierazi ziguten.

ZAZPI GUNEKO IBILBIDEA

Kontzentrazioa Eskoriatzako 4x4 Basurdeak taldeak antolatu zuen, Eusko Motor taldearen laguntzarekin. Ibilbidea zazpi gune ezberdinan banatu zuten anto-

latzaileek. Hala, gidari bakoi-tzak zazpi guneak pasa behar izan zituen; lehenengo eskumati ezkerrera eta gero ezkerretik eskumara. Bai zapatu eta bai domekan ibilbide bera egin behar izan zuten. Bukaeran, puntu arabera sailkapena osatu zuten.

ZIGORRAK PUNTUA

Antolatzaileek arau batzuk eza-rrizikietaen gidariei. Hala, seguritasun-uhala erabiltzea beharrezko izan zen. Arau hori bete-tzen ez zuen gidariai momentuan egiten ari zen eremutik kanporatua izateko arriskua izango zuen. Beste arau batzuek, ordea, puntuako zigorra besterik ez zuten izan.

Zapatu gaelean, Apotzagana bertan, ibilgailuen lasterketa bat egin zuten, sorpresa bezala. Gidarieki bi eremu egin behar izan zuten eta irabazlea Goizeder Beltza izan zen. Jai giroarekin jarraitzen modu aparta izan zen, duda barik. Atzo, sari banaketa egin eta gero, bazkaria izan zuten 4x4 ibilgailuen kontzentrazioa parte hartu zuten gidarieki Eskoriatzako Mendi Goia hotelean.

Gidariek zazpi gune ezberdin pasa behar izan zuten; guztiak ziren puntuagarriak



Eguraldia lagun, ikusle asko hurbildu zen Apotzagara asteburuan.

JOSETXO ARANTZABAL

• IKUSLEAK GUSTURA APOTZAGAN

XABIER | ARETXABAleta



RAFA | BERa



BEGOÑA, GAIZKA, UNAI ETA MIREIA | OÑATI

"Giro polita egon da Apotzagana"

Xabier Oñederra Basurdeak taldeko kidea da eta 4x4 kontzentrazioko antolatzaile taldean aritu da. "Espero baino jende gutxiago etorri da, baina maila oneko gidariai etorri dira Eskoriatza aldera", adierazi digu Xabierrek. Bazkarian ere giro bikaina izan zuten gidari eta antolatzaileek.

"DJ Ianak egitera etorri naiz Eskoriatzara"

"Aste bukaera guztia pasako dugu Eskoriatzan; antolatzaileen etxeetan lo egingo dugu", esan digu Berako Rafak. Urtero etortzeko ohitura dutela ere esan digu Rafak: "Lagunarte ona izaten da hemen eta urtero etortzen gara. Aurten, musika jartzea egokitzen zait Apotzagana".

Sailkapena**PUNTUAKEA**

1. Xabier Larrea	480
2. Xuper Ordorika	805
3. Unai Tokero	910
4. Goizeder Beltza	930
5. Xabier Axpe	960
6. Aitor Frutos	1100
7. Javier Aranguren	1140
8. Aitor Larrañga	1590
9. Asier Arana	1730
10. Joseba Zubia	1825
11. Lazagorta Egia	2005
12. Adolfo Manteca	2040
13. Risitas	2045
14. Julen Etxezarreta	2100
15. Carlos Diaz	2350
15. Emilio Garcia	2350

"Ez da lehenengo aldia hona gatozela, eta, beste urte batzuetan bezala, giro polita dagoela iruditu zaigu"

Laukote oñatiarra urtero etortzen da Apotzagako 4x4 kontzentrazioa. "Ahah dugunetan etorri izan gara. Beste batzuetan, gainera, beste herri batzuetara ere joan izan gara", adierazi digute oñatiarrek. Giroa ona zela iruditu zitzaien: "Beste urte batzuetan egon izan den giro bera dago. Bero handia egiten du, baina, hala ere, jendea etorri da". Zapatu, Begoña, Gaizka, Unai eta Mireia ikusle soilak izan ziren Eskoriatzan, baina Mireiak esan zigunez: "Unaiek hartu izan du parte probaren batean noizbait, baina gaur ikustera bakarrik etorri gara".

Futbola

• IPINTZAKO TXAPELKETA

Lagundia A eta Ostrukak nagusi nesken finaletan

Nesken A eta senior mailetako finalak irabazi zituzten, hurrenez hurren

Mireia Bikuña

Egubakotz arratsaldean jokatu ziren finaletako batean, Lagundia A eta San Martintxo aritu ziren. Partidua berdinketarekin bukatu ondoren, irabazlea penalti jaurtiketek erabaki zuten. Eta penalti jaurtiketean, Lagundia A taldea izan zen hobea.

Kontsolazio finalean, Pin Pola taldeak 2-1 mendean hartu zuen Lagundia Txiki. Txapelketako jokalari onenaren saria Melani Concepcionek jaso zuen.

SENIOR MAILA

Ostrukak eta Arrano taldeen arteko partidua ez zen hain parekaria izan. Txapelketan lehen aldiz parte hartu arren, Ostrukak 4-0 hartu zuen mendean Arrano taldea. Kontsolazio finala, berriz, Gama Informatikak irabazi zuen.

Beste sari batzuk ere banatu ziren: Andrea Berboisek txapelketako jokalari onenaren saria jaso zuen, Izar Mendikute izan zen atezainik onena eta Maiatal Hernandez, golegile onena.



JOSE LUIS BEITIA
A mailako finalistak, Lagundia A eta San Martintxo, amaieran sariekin.



JOSE LUIS BEITIA
Ostrukak eta Arrano taldeetako jokalariak sariekin ateratako argazkia.

Pilota

Udaberri Txapelketako finalak giro bikainarekin jokatu ziren Osintxun

Mireia Bikuña

30 mutikok parte hartu zuten zapatu goizean Osintxun jokatu ziren benjamin, alebin eta infantil mailetako finaletan.

Osintxun jokatu ziren partiduetako irabazoleak izan ziren: benjamin A mailan, Ander Fuentes eta Iker Ruiz de Larrañmendi; benjamin B mailan, Unai Zubizarreta eta Mikel Gonzalez; benjamin C mailan, Eneko Etxeberria eta Iban Etxabarri; alebin A mailan, Andoni Najera eta Lander Osa; alebin B mailan, Iker Fidalgo eta Ander Aristi; infantil A mailan, Ander Larreñategi eta Mikel Urrutia; infantil B mailan, Aitzol Gutierrez eta Jokin Etxabe eta azkenik, lau terdiko finalerdian, Aritz Rezusta. Amaieran sariak jaso zituzten irabazoleek.



JOSETXO ARANTZABAL
Benjamin, alebin eta infantil mailetako 30 pilotari aritu ziren.

ENTRENATZEKO LEKU BARIK
Frontoiko lanak tarteko, entrenatzeko leku barik daude beragarako pilotariak: "Entrena-

tzeko beste toki bat eskatu genion Udalari. Baina ez dugu erantzunik jaso", azaldu digute, haserre, pilota sailekoek.

Onatiko plazako pilota txapelketa



ARANTZAZU ESKIBEL
Plazako pilotalekua konpondu bitartean, Zubikoan arituko dira pilotariak.

Plazako Txapelketa final-zortzirenetara iritsi da

Txapelketan, gazte mailako 28 bikote eta kadete mailako beste 23 bikotek dihardu

A.E

Egubakotzean jokatutako partiduekin, Onatiko Plazako Txapelketa azken txanpan sartu da, final-zortzirenetan.

Gazte mailako bi partidu jokatu ziren egubakotzean. Lehenengo norgehiagoka Lemoako Fernandez eta Sedane eta Saiazko Irazusta eta Errazkinek jokatu zuten. Partidua samur irabazi zuten Lemoako bikoteak (22-9). Saiazko atzelaria eskuan min hartuta zegoen eta ez zuen pilotagozatzerik izan. Horrela, bede-

ratzi tanto besterik ez zuen egin bikote gipuzkoarrak.

BIGARRENA, PARTIDU ONA

Bigarren norgehiagoka, hora ere gazte mailakoa, ikusgarria izan zen. Saiazko Narbarte eta Muxika bikoteak 19-22 irabazi zion Berrizko Atxotegi eta Agirrebal bikoteari.

Partidu polita jokatu zuten pilotari gazteek, tanto luze eta onak eginda. Hasierako tantoeitan bikote gorriak markagailuan aurre hartu zuen arren, Saiazko bikoteak ondo eutsi zuen partiduaren erritmoa. Hala, azken unera arte izan zuen bizitasuna norgehiagokak.

Onatiko txapelketari maiztzean eman zitzaiion hasiera. Berrian, Euskal Herri guztiko pilotariek hartu dute parte; guztira, gazte mailako 28 bikote eta kadeete mailako 23 aritu dira. Uztailoko azken asteburuan jokatuko dira txapelketako finalak.

Atletismoa

Urrezko bi domina Maria Jose Gilentzat Espainiako beteranoen txapelketan

Mireia Bikuña

Murtziara abiatu aurretik zuen helburu bikoitza bete du Maria Jose Gilek: urrezko bi domina irabazi zituen Aguilasen (Murtzia) asteburuan jokatutako beterano mailako Espainiako txapelketan.

1.500 ETA 5.000 METROTAN

Aurreko edizioetan gertatu bezala, aurkari gutxi izan zituen korrikalari arrasatearrak 1.500 eta 5.000 metroko lasterketetan. Maria Jose Gilek 65 urtekoen probetan parte hartu zuen.

1.500 metroko lasterketa egubakotzean jokatu zen. Hiru korrikalari hartu zuten parte. Korrikalari arrasatearrak 28 segundoko aldea atera zion bigarren



ARTXIBOA
Maria Jose Gil.

sailkatuari. Helmugan 6:22ko denbora egin zuen Maria Jose Gilek. 5.000 metroko lasterketa, aldiz, atzo goizean jokatu zen. Maria Jose Gilek 23:08ko denbora egin zuen helmugan.

GATZAGA | DORLETAKO AMA 28. PROBA

Jon Pena bizkaitarra nagusi Dorletako ama proban

Atzo jokatu zen Dorletako ama proba, beste urte batzuetan herriko jaietan jokatu izan dena

90 parte-hartzaile aritu ziren Gatzagako proban; horietatik 54 iritsi ziren Gatzagako helmugara

Goreti Elortza/Arantzazu Ezkibel

Alfus taldeko Jon Pena nagusitu zen Gatzagako proban. Txirrindulari bizkaitarrak 2.36:52ko denbora behar izan zuen lasterketa amaitzeo.

Proba 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariei zuzenduta zegoen. Gatzagako plazan 90 txirrindularik eman zuten izena eta horietatik 54 iritsi ziren helmugara.

Lasterketa 10:00etan hasi zen Gatzagako plazan. Txirrindulariak Gatzagatik Bergarara joan ziren. Lehenengo itzuli horretan tropela batuta egon zen. Elorregi inguruan, ihesaldi saioa egin zuen Bidelan-Kirolgi taldeko txirrindulari batek, baina ihesaldia bertan behera gelditu zen. Elorregitik Arrasatera eta gero Gatzagara joan ziren txirrindulariak. Gatzaga gaina igo eta Arlabanen behera hiru txirrindularik tropeletik ihes egin zuten.

BIGAREN IGOERAN IHES EGIN ZUEN PENAK

Arlabanen behera aurreratuta zihoazen hiru txirrindulariak, baina, Eskoriatzan harrapatu zituen tropelak.

Bigarren itzulian, lasterketak Eskoriatzan hartu zuen Gatzagarako bidea. Bigarren itzuli horretan, Jon Pena eta Lotus taldeko Vincent Ragotek tropeletik ihes egin zuten. Gatzaga igotzen ari zirela, Jon Penak Vincent Ragotik aurre hartu zion. "Vincent gogor ikusi dut eta Arlabanen goitik beherako bidean ihes egingo zidan beldurra nuen. Hala, nik egin dut ihes Gatzaga igotzen ari ginela", esan zigun txirrindulari bizkaitarrak.

Venta Fria gainean, Jonek 30 segundoko aldea ateratzen zion txirrindulari frantsesari. Hala, azken itzulia bakarrik egiteari ekin zion Jon Penak. Goitik beherakoan, aldea murriztu beha-

rrean, handitzen joan zen Gatzagako irabazlea.

TARTEA HANDITU

Azken itzulirako indarrak gorde zituen Jon Penasek. Arlaban jai-tsi zuenean, Eskoriatza aldera hartu zuen txirrindulariak. Eskoriatzan, 1:30 segundoko aldea atera zion Jonek atzetik zetorren 11 txirrindulariko taldeari.

Gatzagako helmugara bakarrik iritsi zen Alfus taldeko mutilla. Bigarren Caja Ruraleko Mikel Nieve sartu zen, 1:14ra. Hirugarrrenak, Camargoko Alberto Fernandezek, zortzi segundo gehiago behar izan zituen helmugan.

Hala, Gatzagako plazan izan zen sari banaketa. Jon Penasek bi sari eraman zituen: txapeldunaren saria eta baita mendiko saria ere. Taldeko saria, berriz, Caja Rural taldearentzat izan zen.

Debagoiendarren artean, Cafe Baque taldeko Xabier Aranguren sailkatu zen lehenengo. Aranguren 20. postuan sartu zen, 2:41:34ko denbora eginda.

Antolatzaleak gustura geratu dira lasterketak izan duen erantzunarekin. Iaz 19 pertsona besterik ez zen izan Dorletako proban. Beraz, egun aldaketak mesede egin dio lasterketari.

**Bigarren itzulian,
Gatzaga igotzen
ari zela egin zuen
ihes Jonek**


**Ibarreko Xabier
Arangurenak
2:41:34ko denbora
egin zuen
helmugan**



Jon Pena saria eskuetan duela Gatzagako plazan.

GORETI ELORTZA


• HORRELA IKUSI DUTE PROBA PARTE-HARTZAILEEK

JON PENA |
GUEÑES

"Gatzagako lasterketa oso gogorra izan da. Indarrak gorde ditut eta azkenean helmugara bakarrik iristea lortu dut"

Alfus taldeko txirrindulariak asko sufritu duela esan digu: "Oso gogorra egin zait lasterketa, batez ere igoerak. Hala ere, bigarren itzulian ihes egitea lortu dut eta helmugara bakarrik iritsi naiz".

"Lasterketako gogorrena Gatzaga igotzea izan da", adierazi digu Penak. Baina lasterketa irabazteaz gain, mendiko saria ere eraman zuen: "Oso pozik nago lortu ditudan bi sariek", adierazi digu. Bada, asko sufritu arren, merezitako garaipena eskuratuz zuen atzo Jon Penak.

HILARIO CORDERO |
ARRASATE

"Lehenengo aldia da Dorletako proba egiten dudana eta oso gogorra iruditu zait, batez ere Gatzaga igotzea izan da zailena "

Hilario Cordero arrasatearra gustura zegoen Gatzagako proban emaitzarekin. "Lehenengo aldia da Dorletako proba egiten dudana. Talderik gabe etorri naiz, nire kasa", esan digu.

Inguruak ezagutzen ditu eta bazekien lasterketa gogorra izango zela: "Oso gogorra iruditu zait proba. Hala, atzean geratu naiz, baina azken postuetan ez bada ere, proba amaitzea lortu dut". Datorren urteari begira, agian Gatzagako proban izango dela esan digu Corderok.

Zapatuan eman zitzaion hasiera aurtengo Tourrari eta atzo jokatu zen lehenengo etapa. Azken urteetako itzuli polemikoena da aurtengoa, dudarik gabe. Markel Irizar

oñatiarrak ez du Tourrera joaterik izan, baina Tourraren nondik norakoak gertutik jarraitu ditu. Hala, Euskaltel-Euskadiko txirrindulariarekin izan gara, gaur egun

txirrindularitzak bizi duen egoeraz hitz egiten. Tropelak une gogorak bizi dituela dio oñatiarrak. Markeli ez zaio justua iruditzen txirrindularitzak jaso duen tratua.

MARKEL IRIZAR | EUSKALTEL-EUSKADIKO TXIRRINDULARIA

“Gizartea edozein arlotan dituen arauak baino arau gogorragoak ditu txirrindularitzak”

Arantzazu Ezkibel

Nolako hasiera izan duen aurten- go Tourrak...

Bai, hasiera benetan nahasia izan du. Txirrindularitzak kolpe asko jaso ditu eta azken hau sas- tada handia izan da. Momentu honetan txirrindularitzak oso kal- tetuta dago, nik uste dut orain bai- no beherago eta okerrago ez gare- la egongo. Agian, dena gelditu eta berriro ere hutsetik hasteko momentua izango da.

Txirrindularitzak jaso duen tratua justua iruditu zaizu?

Ez, eta min ematen du gerta- tu denak. Sumarioan 200 kirol- riren izenak daude eta argitar- atera diren izen guztiak txirrin- dularienak dira. Gainera, diru- duten txirrindulariak dira.

Kontuan hartuta 300.000 euro ordaintzen zituztela tratamendu horiengatik, zerrendetan beste 142 kirolarik egon behar dute. Eta ez edonolako kirolariak. Beraz, zergatik ez dira izen horiek eman eta bai ordea txirrindularienak? **Espaniako txapelketa planto egin zenuten; dopinaren aurka zaude- tala adierazteko modu egokiena dela iruditzen zaizu?**

Ni ados nago egin genuena- rekin. Gehiago esango dizut, nik

Madrilera, Castellanara joatea proposatu nuen. Txirrindulari bezala gauza asko gaizki egin ahal izan ditugu, baina ez da jus- tua jaso dugun tratua.

Txirrindularitzak gaur egun dituen arauak ez dituzte beste kirolek. Gizartea edozein arlotan dituen arauak baino askoz gogorragoak dira txirrin- dulariok ditugunak.

Orain, etxeak kontrolak egiten hasi behar dute. Lotsagarria da, ez daukagu intimitaterik. Oporretara goazenean, karta bidez adierazi behar dugu nora goazen; horrela kontrolak egite- ra etorri ahal da norbait.

Baina jendeak dio pasta janda bakarrik ezin dela horrela ibili.

Niri komentario horrek gra- zia egiten dit. Guk bitzitz osoa daramagu txirrindularitzan, egune- ko 24 orduak gure gorputza zaintzen. Baina makarroiekin bakarrik ezin dugu Tourra egin. Beste edozeini, berriz, kirola egin behar duela sartu zaio buruan. Egunero zortzi ordu lantokian egin eta gero, bi ordu entrenatu eta Quebrantahuesos –azken finean Tourreko etapa bat– sei orduan egiteko gai da. Horiek egin dezakete, baina guk ez.

Aurtengo Tourreko podiuma inoiz baino irekiago dago. Nor ikusten duzu faborito?

Momentu honetan, Tourra zela bukatuko den ez dakit. Gau- zak dauden bezala, errepideak baino epaileek garrantzi han- diagoa dutela ematen du.

Nire faborito nagusia Ullrich zen, Sutzan oso gogor ikusi nuen. Baina Ullrich tropeletik kanpo geratu da eta Basso ere bai; beraz, ez dakit. Gure taldean, Iban Mayo eta Haimar oso ondo ibiliko dira. **Seigarren parte-hartze honetan, zein izango da Euskaltelen hel- burua?**

Gure helburu nagusia Iba- nek etaparen bat irabaztea izan- go da. Haimar, berriz, sailkapen

orokorrean zerbait polita egiten ahaleginduko da. Iban momentu onean iritsi da Tourrera eta eta- paren bat irabazteko moduan badago, irabazi egingo du. Oso txirrin- dulari gutxik duten arraza du Ibanek.

Pirinioetako etapak egunez alda- tu izanak jarraitzaile gutxiago izatea dakar zuentzat?

Bai, dirudienez euskal zale gutxiago joateko aldatu dituzte etapa horiek. Leku guztietan bezala, paperak galtzen dituzte- nak ere joaten dira Pirinioetako etapetara, baina benetako zale- tasuna duen jendeak, aurten, ezin izango du Tourra ikustera joan; horrek pena handia ematen du.

Azken urteetan, parrandara joan izan da jendea Frantziako Tourrera, inongo zaletasunik gabe. Italiako Giroan, esaterako, 30 bat euskaldun izan dira erre- pide ertzean eta horiek beneta- ko zaleak izan dira.

Armstrongi lekuoa hartuko dionik ba al dago tropelean?

Ez. Urte mordoa pasa behar- ko da maila horretako txirrin- dularien bat ikusteko. Gaur egun ez dago nagusitasun hori duen inor tropel profesionalean.



ARTXIBOA

Markel Espainiako eta Alemaniako probak prestatzen ari da.

Izarrik gabeko Tourra

Aurtengo Frantziako Tourra azken urteetako itzuli nahasiena izango da. Maiatzean hasi zen polemika, Madrilen izan ziren atxiloteketkin. Ordutik hona izen asko entzun dira, baina egunetan, Tourra hasteko bi egun falta zirela, dopin kasuan inplikatuta zeuden txirrindularien izenak agitara atera ziren.

Azken urteetan aurrean ibili diren txirrindularien izenak zeuden bertan, besteak beste: Ullrich, Basso, Mancebo eta Beloki. Horiek guztiak Tourretik kanpo geratu dira eta baita Comunitat Valenciana eta Astana-Wurth taldeak ere. Aurtengo Tourra izarrik gabeko Tourra izango da,

beraz. Ez dago faborito argirik Parisko podiumerako.

Zapatuan, Thor Hushovd norvegiarrak (Credit Agricole) 2006ko Tourreko lehen liderraren jertsea jantzi zuen, atariko proban markarik onena eginda. 7,1 kilome- troko etapa egiteko 8 minutu eta 17 segun- do behar izan zituen txirrindulariak.

Atzoko etapa, berriz, esprintean amaitu zen. Cofidis taldeko Casper izan zen azkarrena Estrasburgoko helmugan. 184 kilometroko etapa egiteko 4:10:00ko denbora behar izan zuten. Tourreko lider berria George Hincapie amerikarra da. Hushovdek min hartu zuen helmugan.

**“Etxean kontrolak
egiten hasi behar
dute; lotsagarría
da, ez dugu
intimitaterik”**

**“Euskaltelen
helburu nagusia
Ibanekin etaparen
bat irabaztea
izango da”**

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitardekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitardekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67

ARETXABAleta



KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

- Egurrarekin eta hondakinekin egindako eskulanen erakusketa, Oñatin | 27
- Udal liburutegi gehienek zabalik jarraituko dute uztail osoan | 27

Arrasate
Musikaleko Big
Bandek soka
gehitu dio
taldeari | 24

KANTALDIA



JOSETXO ARANTZABAL

Robert Larrandaburu, Dominika Etxart eta Niko Etxart egubakoitzean Antiguako baselizan egindako kantaldian.

EUSKAL KANTUAK | HIRU ZUBEROTARREK ETA MIKEL MARKEZEK ERREPERTORIO GOZOA ESKAINI ZIGUTEN HURBILDUTAKOEI

Iparraldea eta hegoaldea ezin hobeto uztartu zituzten kantariek Antzuolan

Euskal kantu tradizionalak abestu zituzten bakarka zein taldeka lau kantariek; zubererazko kantu herrikoia izan ziren gehienak eta amodiozko gaiak nagusitu ziren kantuetan

Goreti Elortza

Egubakoitz gauean izan zen saioa Antzuolako Antiguako baselizan, 22:30ean. Jende askorik ez zen hurbildu baselizara, baina batutakoak oso gustura agertu ziren ikusi eta entzundakoarekin. Eta ez zen gutxiagorako izan.

Niko Etxart, haren aita Dominika Etxart eta koinatu Robert Larrandaburu zuberotarrak gogotsu etorri ziren Antzuolara. Senideek argi utzi zuten *a capella* abesteko duten gaitasuna, eta *Eperra* diskoan oinarritutako emanaldia egin zuten. Mikel Markez erreenteriarak ere betiko gozotasunarekin kantatu zituen zenbait abesti. Horrela, bada, Euskal Herriko iparra eta hegoa

ederki elkartu ziren saio hunkigarri horretan.

Kantaldia Niko Etxartek hasi zuen *Goizian goizik jaiki nindüün* abestiarekin. Kontatu zuen 1981eko udan orain emazte duen Edurnerekin Antzuolan bizi izan zela eta oroitzapen politak ekarri zituen gogora. Segidan, bere bi senideak aurkeztu zituen eta *Argizariak argitzen düzü kantua* eskaini zuten hiru ahotsetan. Gero, Attuli musikariaren kantu bat abestu zuten Dominikak eta Robertek. Dominikak abestu zuen ondoren *a capella Bazterretik bazterrera* kantu ezagun zaharra. Aitak, esku adierazpen eta guzti, batutakoak liluratu zituen eta bere 73 urteekin sasoian dagoela erakutsi zuen.

Gero, Niko agertu zen berri, eta XVII. mendeko musika eta letrak dituen pastoral bat abesztu zuen. Segidan, Mikel Markez kantari erreenteriarra aurkeztu

Antzuolan bizi izan zeneko anekdotak ekarri zituen gogora Niko Etxartek

Kantu ezagun asko entzun eta kantatu zituzten bertara hurreratu zirenek

zuen Nikok berak. “Pizti bitxia” deitu zion Nikok Markezi eta agerian gelditu zen euren arteko harreman ona. Nikok baselizara hurbildu ziren Quebec hiriko lagun batzuei eskaini nahi izan zien hurrengo abestia: *So bat* izenburuko amodiozko kanta.

Horren ondoren Markezen txanda heldu zen. Hark eserita abestu zuen bere gitarraren laguntzarekin. Lehenik, Nikorekin kantatzea txikitako ametsa zela aitorrtu zuen: “Horrelako ametsak izatea ongi dator, bete egin daitezke-eta”, esan zuen Aian bizi den gipuzkoarrak. Abesti ezagunak jo zituen jendearen gozamenerako. Euren artean, Sonia Gonzálezek idatzitako poema bat abestu zuen. Bere azken

diskoaren izenburu bera du olerki horrek, *Erabil nazazu*. Aia inguruko bertsoak eta Victor Jara txiletarraren *Te recuerdo Amanda* kantuaren euskarazko bertsioa ere eskaini zituen.

Ondoren, zuberotarrek ekin zioten berriro. Aita-semeek lehengo artzainek erabiltzen zuten *bortu botza* teknika erabiliz kantatu zituzten hainbat abesti. Behin baino gehiagotan ahaztu zitzaison Nikori kantuaren letra, eta aitak gogorarazi behar izan zion. Barre algarak sortu zituen egoera horrek ikusleen artean. "Semea zahartzen doa", esan zuen Dominikak barre artean.

IKUSLEAK ERE KANTUAN

Azkenik, Markez ere batu zitzaien eta abesti ezagunenak eskaini zituzten. *Zure begiek* kantatu zuten lehenengo aldiz Nikok eta Mikelek. Jendea ere animatu zen abestera. Behin eta berriz eskatu zuten ikusleek beste abesti batzuk, etxera joateko presario gabe. Kantariekin gustura abestu zituzten beste hainbat euskal kantu bi ordu inguru iraun zuen ekitaldi berezian.

Ikusleek gustura
asko jardun zuten
lau kantariekin
batera kantuau

Markezek bere txikitako ametsa bete zuen: Niko Etxartekin kantatzea

*Agerian geratu zen
elkarri dioten
errespetu eta lilura,
eta ilusio
handiarekin eskaini
zituzten tradizioko
kantuak*

Goreti Elortza

Egubakoitz gaeuko kantaldian Euskal Herriko bi kantari ezaugunen kantuak entzun ahal izan genituen Antzuolan. Iparraldeko Niko Etxart kantari emblematikoa eta hegoaldeko Mikel Markez, hain justu ere. Abesti batzuk gitarraren laguntzarekin kantatu zituzten eta beste batzuk *a capella*.

ELKARREKIN GUSTURA

Mikel Markez erreenteriarra gustura ageri zen Nikoren ondoan eta elkarri dioten lilura nabaria izan zen emanaldi osoan. Bada, saioko momentu askotan batak besteari loreak botatzen jardun zuten. Nikok Mikel kantuau entzutea beti plazera dela aitorru zuen, eta haren gozotasuna



JOSETXO ARANTZABAL

Mikel Markezek eta Niko Etxartek elkarrekin ere abestu zuten egubakoitzean.

goraipatu. Markezek, berriz, bere txikitako ametsa Nikorekin batera kantatzea zela kontatu zuen eta pozik agertu zen eman-dako aukerarekin. Giro onean egin zuen aurrera saioak, hiru zuberotarrek eta gipuzkoarrak

Laukote bikaina
osatu zuten, eta
hori izan zen
arrakastaren gakoa

laukote ederra osatu baitzuten. Jendearen parte-hartza ere eskatu zuten zenbait abestitara eta Antzuolara gerturatutako ikusleek bikain erantzun zioten eskariari, kantuau zein txistuka.

BEHERAPENAK

dasta itzazu

Beherapen hauek zapore freskagarria
utziko dizute. Izan ere, 20 eurotik gorako
erosketako tiket bakoitzeko,
Boulevardek eta Helados Nestlek,
astelehenetik ostegunera, Extreme Gold
Vainilla kono ederra ematen dizute opari.
Zatoz informaziogunera.

Dasta ezazu!





ROCK JAIALDIA | SKASTI, ANGER ETA OZEN TALDEEK EGIN ZUTEN EMANALDIA

Kostaldetik etorritako ska-punka eta barnealdeko rock gogorra Elgetan

*Gauerdian, Skasti taldearen ska eta punk kontzertuekin hasi ziren egubakoitzean
Elgetako gaztetxeko kontzertuak*

J. B.

Gaua ahalik eta gehien luzatu guran-edo, gaueko hamabiertarako programatu zituzten gaztetxekoek kontzertuak egubakoitzean. Hiru izan ziren taldeak,

Skasti, Zarauztik, eta Anger eta Ozen, gertuagotik, Arrasatetik. Hala, kostaldeko mutilak hasi ziren gaztetxe aldameneko jolas-leku oholtza berotzen. Ska eta reggae koordenatuetan erraz eta erosotasunez kokatuta, ukitu

punkarekin ipini zioten dantzatzeko giroa gauaren hasierari zarauztarrek. Iazko udan hasi ziren elkarrekin jotzen, baina esperientzia urria ez zen izan baliozko aitzakia. Fin ibili ziren Elgetan haien ere, batez ere bateria-jotzaileak harritzeko abilezia erakutsi zuen.

ARRASATEKOAK HURRENGO
Biluztu diskoaren errebalida egingo joan zirenak Arrasateko

Angerrekoak izan ziren. Iaz, hain justu ere, aurkeztu zuten diskoa Elgetan eta hamaika oholtzatik pasatu ostean Elgetara itzuli ziren. Hasiera-hasieratik izan zituzten arazoak soinuarekin, baina, desanimatu barik, bertan bildutako lagunak behintzat mugiarazi zituzten. Azken emanaldia akustikoan egin zuten eta molde elektrikoetara itzulera bikaina egin zuten egubakoitzean, Lopez bateria-jotzailearekin

batera. Lopezen ordezko lanean, Ozeneko bateria-jotzaile Iker ibili zen eta haiek jo zuten azkenan Elgetan.

Mundu perfektua aurkezten dabilta azkenaldian taldekoak eta ez dituzte emanaldi gutxi egin diskoa atera zutenetik. Ohiko rock gogor baina melodikoarekin, aurreko taldeek emandako mailari eutsi zioten haien ere. Goizeko ordu txikiak arte iraun zuten kontzertuek.



ARRASATE BIG BAND TALDEA | **HARIA GEHITU DIOTE TALDEARI**

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak haria gehitu dio taldeari -biolinak, biolontxeloak eta biolak, 11 guztira- eta barikuau egin zuten lehen emanaldia Monterreron. Bi zatitan banatu zuten emanaldia. Lehena klasikoagoa izan zen: lau pieza egin zituzten, tartean *Artie Shaw* ezaguna. Bigarrena, berriz, modernoagoa izan zen. Bost lan egin zituzten eta rocka, latina eta bluesa tartekatu zituzten, besteak beste. Ohi bezala, kantuan Amaia Arriaran bergararrak jardun zuen. Barikukoa irailera arteko azken emanaldia izan zen. | M.B.



BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA | **ENTZULEAK HARRITU ZITUEN**

San Pedro parrokiaren barikuan egindako kontzertua benetan gustagarria izan zen. Ezohiko repertoirea egin zuten pieza klasikoak, soinu bandak eta Mecano tartekatuta. Aipatzeko da emanaldia irekitzeko egin zuten Albinoniren harirako *Adagioa*. Sentimendu handiz aritu zen Leire Ibarzabal biolin-jotzailea bakarlari. Aipatzeko da, baita ere, nola interpretatu zuten *La vida es bella* filmeko soinu banda, eta, bereziki, Mikel Maniega (tronpetista) Tzeitel Martin (klarinetea) eta Asier Elortzaren (gitarra akustikoa) lana | M.B.

www.euskoauto.toyota.es

Kalitatea, erakargarri

Prezioa ikusita, harrigarria da hain kalitate handia edukitzea, eta alderantziz



Toyota Corolla Luna 3 ate D-4D Diesel 15.885 €

Toyota Corolla Luna 2006 gama.

- Ondorengo motorrak: azken belaunaldiko D-4D Diesel Common Rail eta VVT-i gasolina.
- Aire-girogailu automatikoa (aire girotua Sedan eta Wagon bertsioetan).
- Aire-zakuak: gidariak, gidari-lagunak eta albokoek.
- ABS+EBD 4 freno-diskorekin.
- Gurpilak 195/60 VR15"-ko aleaziozko hagunekin.
- Irratia CD RDS 4 bozgorailurekin
- Atzerako ispiliak: margotuta, elektrikoak eta berogailuarekin.
- Aginte-panelean aluminio/karbono itxurako txertaketa (3 ate eta 5 ate).
- Audio-agintea integratuta duen larruzko bolantea.
- Optitron instrumentazioa.

Toyota Corolla bat daukazu 13.330 €-gatik



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



FINANCIAL
SERVICES



Kontzesionarioa

EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI


BEZA, garraioa, matrikulazio zerga, kontzesionarioaren promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana ez dago barne. Eskaintza balaiagarria hil bukaera arte Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autoarentzat. Iragarritako modeloak: Toyota Corolla Luna 5 ate (lainotako faroak aukeran). Publikoarentzako salmenta-prezio gomendatua Toyota Corolla Luna 3 ate D-4D Diesel 1.4 autoarentzat. Kontsumo konbinatua Corolla D-4D Diesel 4,7 eta 5,6 l/100 km artean. CO2 igorpena 126 eta 149 g/km.



UDAKO ARGAZKien ASTELEHENeko GOIENKARIA II. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



KOITADUA. Fezen, familia bat etxez aldatzen ari zela egin zuten argazkia iazko abuztuan. Irudiko astoaren atzean beste hiru zihoazen. /Argazkia: Oier Garai /Eskoriatza



ANAYET MENDIA. Iazko abuztuan igo ziren Anayetera argazkiko hiru bergararrak. Ezkerretik eskumara: Jose Ignacio Mondragon, Eneko Azkarate eta Joseba Moñux-. /Argazkia: Joseba Moñux /Bergara



EGUZKIARI BURLAKA. Itsaso zabalean gorde aurretik eguzkiari bur-laka jardun zuen debagoiendar honek Conileko hondartzan -Cadiz-. 2004ko abuztuan izan zen hori. /Argazkia: Mireia Olabe /Aretxabaleta



CESKY KRUMLOV. Iazko abuztuan Txekian izan zen lagun taldea. Argazkiko Cesky Krumlov herria da. Hiru egun eman zituzten han. Asko gus-tatu zitzaien; baita hango garagardoa ere. /Argazkia: Eneko Iturbe/ Arrasate

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helibidea edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2006ko irailaren 18a.

Sariak:

- Parte-hartziale bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoan den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira Asteleheneko Goienkaria-n.
- Urriaren 2ko Asteleheneko Goienkaria-a aditzera emango dira irabazleen izenak.



Babeslea:



Laguntzaileak:



Eskualdeko film laburak eta 'Aupa Etxebeste!', udako film emanaldietan

Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Arrasaten, aire zabaleko zinema emanaldiak antolatu dituzte udarako

Leire Kortabarria

Udako gaueko giro epelaz eta zinemaz, bietaz batera gozatu ahal izango da datozen asteotan. Izan ere, hainbat herrik aire zabaleko zinema emanaldiak antolatu dituzte, udako kultura programen barnean. Besteak beste, Atzegik saritutako film laburak –Aratzen Bidaia baten ametsa, tartean– eta Aupa Etxebeste! luzea ikusteko aukera izango da.

Bihar, martitzena, izango da lehen saioa: *Brokeback mountain* filma emango dute Herriko plazan 22:30ean. Etxi, eguztena, *El reino de los cielos* emango dute Eskoriatzako plazan, horri ere 22:30ean.

Hurrengo emanaldia Aretxabaletan izango da, hilaren 5ean, eguna: Loramendi elkarrekin antolatuta, eskualdeko I. Eusko Labeldun film laburren emanaldia egingo dute, plazan, 22:30ean.

FILM EZAGUN ASKO

Aretxabaletako plazako emanaldiak uztaleko martitzenean eta egubakoitzetan izango dira, betiere, eguraldi txarrak galarazten ez badu. Atzegiren film laburren emanaldiaz gain, *El jardinero fiel* edo *Memorias de una geisha* bezalako lan ezaungak emango dituzte.

Eskoriatzako film saioak uztaleko astelehen, eguzten eta egubakoitzetan izango dira. Besteak beste, *Aupa Etxebeste!* emango dute. Horrez gain, *Las crónicas de Narnia*, *Crash* eta beste film ezagun batzuk.

Arrasateko Monterron parkean ere izango da zinema, uztaleko eta abuztuko egubakoitzetan. *Aupa Etxebeste!*, *Volver*, *El código Da Vinci* eta beste batzuk emango dituzte han.

Bergaran, abuztuan emango dituzte zenbait film.

Labur

Rafa Rueda bakarlariak kontzertua egingo du egubakoitzean Bergaran

Rafa Rueda abeslari mungiarrak kontzertua egingo du egubakoitzean, hilak 7, Bergarako Espoloian, 22:30ean. Saredun esku diskoa aurkezteko bira egiten dihardu, eta Bergara izango du hurrengo geltoki. Aurretik, Elgetan eta Arrasaten aurkeztu du disko hori.

Abestu eta gitarra joko du Ruedak, eta honako taldekiek izango ditu lagun: Mikel Azpiroz teklatu-jolea; David Gonzalez, baxuan; eta Rufo Urbina, bateria jotzen.

Udal liburutegi gehienek zabalik jarraituko dute uztail osoan

Udako ordutegiarekin hasi dira liburutegiak, baina uztail osoan zabalik egongo dira gehienak egunero. Kontuan hartu behar da Aramaiko liburutegiak arratsaldez bakarrik zabalduko duela hilaren 13ra arte, eta goizez bakarrik hilaren 178tik 29ra arte. Bestetik, Aretxabaletakoak goizez bakarrik irekiko ditu atea astelehen, eguzten eta egubakoitzetan.

Abuztu osoa zabalik egongo da Arrasateko liburutegia. Oñati-ko itxita egongo da hilaren 1etik 15era, eta Bergarakoa, 14tik 20ra.

Uda da 'Gomendatzen dizut...' sarkonetan parte hartzeko sasoia

Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomendatzen dizut...* lehiaketa dute zabalik udaberriaz gerotzik, eta aurreko edizioetan, udan jaso izan dira gomendio eta argazki gehienak. Irailera bitartean, beraz, udako oporretako gomendio eta argazkiak bidaltzeko aukera dute debagoiendar guztiak.

Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik beherakoendako, 300 euroko irteera bat.

Hitzorduak



EGURRAREKIN ETA HONDAKINEKIN EGINDAKO ESKULANEN ERAKUSKETA | Florentino Santos 'Tino' erretiratuak ipini du erakusketa Oñatin, azken urteotan egindako lanekin

Galduako gauzen oroinmena berreskuratzen izenarekin, Florentino Santos Pérez Tino Extremaduran jaiotako oñatiarrak egurrez eta botatako gauzezin egindako artelanen erakusketa ipini du. Oñatioko kultura etxeen dago bisitatzeko aukera eguztenera arte, 18:30-20:30 orduetan.

Tino-k erretiroan deskubritu zuen bere trebetasuna. Batik bat egurra, adarrak... erabiltzen ditu bere irudiak egiteko, baina oso bestelako materialak ere bai: larrua, metala, plastikoa, apurtutako altzariak eta tresnak, pinaburuak, gabilak (tirafondoak) eta beste hamaika tresna eta material.

ZINEMA I

• *Snatch, cerdos y diamantes* filma emango dute Elgetan

Etzi, eguztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean. Pertsonaia bitxi askoren bizitzak elkarrekin gurutzatzen dira komedia honetan: batetik, gangster batzuk atzetik dituen lapur bat; amari karabana erosia nahi dion nomada irlandar bat; boxealariak, txakur bat... Denak diamante baten atzetik doaz.

MUSIKA I

• *Jazz-zinema emanaldia egingo dute Elorrión*

Madrilgo Racalmuto taldeak jazz-zinema emanaldiak egingo du; hau da, 30eko hamarkadan Warner etxearen marrazki bizidunak girotzeko erabiltzen zen musika joko dute. Hilaren 7an izango da Tola jauregian, 22:30ean.

• *Sexty Sexers, Los Chuloputas eta Monky Day*

Sexty Sexers talde beratarrak kontzertua egingo du zapatauan, hilak 8, gaztelekuaren. Los Chuloputas eta Monky Day taldeek ere joko dute.

ERAKUSKETAK I

• *Bergarako ume eta gaztetxoen margo ikastaroa*

Bergarako Beart elkarteko ume eta gaztetxoek ikasturte bukarako erakusketa ipini dute

Nahikari tabernan. Uztailaren 9ra arte dago zabalik.

• *Antonio Oteizaren eskultura lanak ikusgai Arrasaten*

Antonio Oteizak, Jorge Oteizaren anaia, hogei bat eskultura ditu erakusketa Arregi markoztatze dendar. Bronozezko eskultura espresionistak dira, motibo erlijiosoetan eta herrikoietan inspiratutako artelanak.

IKASTAROAK I

• *Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa*

5-13 urte bitartekoendako margo eta marrazki ikastaroa antolatu du Beart elkartea uztail goiztarako. Izenematea: 665 70 31 75 (Oihana) edo 653 71 53 82 (Mayra).

LEHIAKETAK I

• *Film laburren lehiaketa antolatu dute Bergaran*

I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozein dako. Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxeen. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenaren dako 100 eurokoa.

• *Oñatioko jaietako kartel lehiaketa antolatu dute*

Herriko jaietako kartela aukeatzeko lehiaketa deitu du Udalak, oñatiarrendako eta Oñatin

bizi direnendako. Derrigorrezko testua hau da: *Oñatioko jaixak 2006*. Kultura etxeen edo udaletxean utzi behar dira lanak. 250 eta 125 euroko sari bana emango dute.

• *Elgoibarko kirol argazki lehiaketa antolatu dute*

Kirol argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Norberak gehienez lau argazki aurkez ditzake, 24 x 30 cm-koak. 200 eta 100 euroko sari bana dago 16-29 urte bitarteko eta hortik gorako kategorietan. Argibide gehiagorako, deitu 943 74 44 15 telefonora edo jo www.elgoibar.org webgunera.

• *III. Euskal Herriko Grafiti lehiaketa antolatu dute*

Hirugarren aldiz antolatu du Topaguneak Euskal Herriko grafiti lehiaketa, eta taldeek egin nahi dituzten grafitien zirriborroak bidaltzeko epea zabalik dago abuztuaren 31ra arte. Argibideak, gazteak2@topagunea.com helbide elektronikoan.

OHARRAK I

• *Biblioporrak gida dago udal liburutegi guztietai*

Ibarreko udal liburutegiek Udako Biblioporrak gida prestatu dute. Liburu eta ikusentzunezkoen 70etik gora gomendio batzen ditu. Liburutegi guztietai dago eskratzeko modua.

Eguraldia**Tenperatura pixka bat baxuagoa izango dugu eguztenetik aurrera**

Haizeak itsasaldeko ukitu handiagoa izango du gaur. Tenperatura beherago ibiliko da, baina, hala eta guztiz ere, bero handia egingo du. Gauean ekaitza egin dezake. Bihar, martitzena, okerrera egingo du eguraldiak. Lainotsu esnatuko da eta egunak aurrera egin ahala urdin-guneak handitzen joango diren arren, iluntzerako euria egingo du. Eguaztenean ere laino ugari izango ditugu eta tenperaturak apur bat behera egingo du. Eguenerako eta egubakoitza egin dezake. Bihar, martitzena, okerrera egingo du eguraldiak. Lainotsu esnatuko da eta egunak aurrera egin ahala urdin-guneak handitzen joango.

Guardiako farmaziak**ARRASATE**

Astelehena, 3	Ruiz Perez	Magdalena, 31 (943 79 14 09)
Martitzena, 4	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
Eguaztena, 5	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)
Eguena, 6	Irizar	Erguin, 11 (943 79 12 39)
Egubakoitza, 7	Zabala	Zarugalde, 42 (943 77 16 30)

BERGARA

Astelehena, 3	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 4	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Eguaztena, 5	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguena, 6	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Egubakoitza, 7	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)

OÑATI

Astelehena, 3	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Martitzena, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Eguaztena, 5	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Eguena, 6	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Egubakoitza, 7	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)

ARETXABAleta

Astelehena, 3	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 4	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 5	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 6	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 7	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

((112))
SOS DEIAK

Uztailaren 3a:
093 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA
Harpidedunen

txokoa

093 zozketako saridunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzekeo. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Angel Inda Bergaretxe (Arrasate)
- Lorea Zubizarreta Iregi (Eskoriatza)

**Zozketak****BONOLOTOA**

Astelehena, 26
8 • 16 • 27 • 39 • 45 • 49
Osagarria: 20 | Itzulketa: 8

Martitzena, 27
2 • 6 • 16 • 23 • 34 • 43
Osagarria: 47 | Itzulketa: 0

Eguaztena, 28
6 • 22 • 29 • 37 • 42 • 48
Osagarria: 47 | Itzulketa: 0

Eguena, 30
18 • 20 • 22 • 28 • 34 • 40
Osagarria: 44 | Itzulketa: 8

ONCE

Astelehena, 26 **58.979**

Martitzena, 27 **02.149**

Eguaztena, 28 **54.460**

Eguena, 29 **22.487**

Egubakoitza, 30 **34.669**

Kupoitzarra (006 seriea) **50.989**

Loteria Primitiboa

Eguena, 29
29 • 32 • 34 • 35 • 41 • 46
Osagarria: 1 | Itzulketa: 0

Zapatua, 1
14 • 16 • 27 • 31 • 39 • 46
Osagarria: 36 | Itzulketa: 8

Zapatua, 1 (Saritzarra)
4 • 20 • 27 • 40 • 41
Itzulketa: 9

Gazte zerbitzuak**BEKAK |**

• **Espesializazio bekak.** Eusko Jaurlaritza. Europako gaietan eta eskualdeen arteko lankidetzen espezializatutako bekak lizenziadunentzat. Epea: uztailaren 5a.

• Administrazio publikoa.

HAEE. Unibertsitateko tituludunei administrazio publikoaren esparruan prestakuntza osatzeko bekak. Epea: uztailaren 21a.

• Atzerriko ikasketak. Eusko Jaurlaritza. Lizentziadunentzat atzerrrian ikasketak egiteko bekak, EAERrentzat interesgarriak diren gaietan. Epea: uztailaren 9a.
EKINTZAK |

• **Erakusketa. Bidaiaik eta garraioak:** bidaia antolatu bat kontratatzaten denean kontuan izan beharreko oinarritzko

jarraiibideak. Monterronen uztailaren 5etik 9ra.

• **Arrantza txapelketa.** San Martin jaiak 2006. Aramaiko Udala. Uztailaren 8an, zapatuan.

• **San Ferminak.** Autobus zerbitzu bereziak Pesa enpresaren eskutik uztailaren 7, 8 eta 9ko Debagoiena-Iruña.

IKASTAROAK |

• **Capoeira.** Arrasateko Gazteria Saila. Uztailaren zehar, astearte eta ostegun arratsaldeetan. Epea: uztailaren 4a.

LEHIAKETAK |

• **San Miguel jaietako kartel lehiaketa.** Oñatiko Udala. Kartelak Oñatiko jaixak 2006 testua izan beharko du eta erabili beharreko teknika librea da. Epea: uztailaren 15a.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

**Telefono jakingarriak****OSASUNA / LARRIALDIAK**

OSAKIDETZA (Larraila). 943 46 11 11

DYA (Orokorra) 943 46 46 22

DYA (Antzuola) 943 78 71 57

Gurutze Gorria 943 22 22 22

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Erzaintza

Arrasate 943 79 19 39

Ertzaintza

Bergara 943 77 91 06

Eskoriatza 943 71 44 07

Leintz Gatzaga 943 71 47 46

Oñati 943 78 04 11

Arrasateko Osp. 943 03 53 00

Antzuola 943 76 62 23

Aramaio 945 44 53 40

Aretxabaleta 943 71 19 59

Bergara 943 03 54 00

Elgeta 943 03 54 00

Eskoriatza 943 71 44 52

DEBAGOIENA

Mankomunitatea 943 79 33 99

Hildegia (Zubillaga) 943 78 15 12

Mendi nekazaritza elk. 943 76 25 47

Nekazaritza Ganbera 943 76 10 15

Zerga Bulegoa 943 76 58 63

Eusko Trenbideak 902 54 32 10

PESA 902 10 12 10

Taxiak

Antzuola 943 76 61 81

Goibeko / Elgeta

943 78 90 85

Loramendi / Aretx. 943 77 09 70

Idolaz / Antzuola 943 78 70 56

Jardun / Bergara 943 76 08 19

Laixan / Oñati 943 71 63 11

Txirritola / Aram. 945 44 52 66

Hondakindegia Alternatiboa

Arrasate 943 77 11 43

Bergara 943 76 44 42

<p

Zorion agurrak



ARRASATE
Eider Agiriano
Uztailaren 1ean,
6 urte. Arizmendi
San Viator Txikiko
lagunen partetik.



BERGARA
Miriam Moñux
Uztailaren 2an, 6
urte. Zorionak!
Aitattoxo, amatxo eta
Andoni.



BERGARA
Jone Arrieta
Uztailaren 7an, 2
urte. Zorionak eta
muxu bat! Gora San
Fermín!



BERGARA
Maddi Lazkano
Uztailaren 7an, 2
urte. Zorionak eta
muxu bat! Gora San
Fermín!



BERGARA
Ander Reifs
Uztailaren 7an, 2
urte. Zorionak eta
muxu bat! Gora San
Fermín!



BERGARA
Asier Lakuntza
Uztailaren 8an, 9
urte. Antzuolako eta
Bergarako familien
partetik, zorionak!



BERGARA
**Haritz Gomez de
Balujera**
Uztailaren 8an, 3
urte. Zorionak, etxe-
koen partetik!



ARETXABAleta
Asier Aranzadi
Uztailaren 1ean, 31
urte. Zorionak eta
urte ona izan.
Etxekoak.



ESKORIATZA
Aritz Zubia
Ekainaren 30ean,
4urte. Zorionak eta
muxu bat, etxekoen
partetik.



ESKORIATZA
Jose Cabeza
Uztailaren 5ean.
Zorionak eta muxu
bat. Emazte, seme-
alaba eta ilobak.



ESKORIATZA
Nagore Garnateo
Uztailaren 7an, 3
urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Alex, Timo eta Sera.



OÑATI
Jone Larrañaga
Ekainaren 27an,
urtebetetzea.
Arrasateko
senideak.



OÑATI
Xanti Egaña
Uztailaren 1ean, 4
urte. Zorionak, biho-
tzez, etxekoen par-
tetik!



ANTZUOLA
Usoa Agirre
Uztailaren 8an, 25
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Goienako lankideak.



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIENKARIaren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

Jaiotakoak



Paulo Abasolo Etxabe
Arrasate • 3,550 Kg. Ekainak 28. Gurasoak:
Ainhoa (Arrasate) eta Jon
(Arrasate). Argazkian amarekin.



Daniel Nespereira Rojo
Arrasate • 3,800 Kg. Ekainak 29. Gurasoak:
Henar (Arrasate) eta Edu
(Arrasate). Argazkian haurra kuman.



Ainara Majon Bigente
Arrasate • 2,600 Kg. Ekainak 29. Gurasoak:
Goyo (Arrasate) eta Ines
(Arrasate). Argazkian amarekin.



Maddi Mateos Aretio
Bergara • 2,900 Kg. Ekainak 29. Gurasoak:
Dorleta (Bergara) eta Jose Javier
(Bergara). Argazkian umea gurasoekin.



Amets Uribetxeberria Azpitarte
Arrasate • 3,800 Kg. Ekainak 30. Gurasoak:
Leire (Arrasate) eta Gari (Arrasate).
Argazkian umea lo.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN




Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu
nahi baditzu, **ARRASATE IRRATIAK**
egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tarte
ARRASATE IRRATIA

FM107.7
ARRASATE
IRRATIA



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 02

Gaur irratian**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Uda giroan' | 10:00

Jon Altunaren ikuspegia

Udako programazioarekin hasiko dira gaur Arrasate Irratian. Egunero bainutokien egoeraren berri emango dute eta, horrez gain, puntuakoa gidabaimena aztergai izango dute astean zehar. Gaur, Hiru garraiolarien sindikatuko Jon Altunaren ikuspuntua jasoko dute.

GOITB programazioa

Astelehena, 3

**Dorletako Ama proba 'Harmailatik' saioan 21:15**

Dorletako Ama amateur mailako txirrindulari probaren gaineko erreportaje zabala eskainikoa dute gaur, Julen Iriondok aurkeztauta.

Martitzena, 4

**'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 22:15**

Mikel Irizar (argazkian), Mikel Usabiaga, Elena Laka eta Josu Muxika solasean eta Iban Arantzabal moderatzaile lanean gaur Berbaire-n.

Eguaztena, 5

**Juan Carlos Bengoa 'Debarri'-n 21:47**

Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkateari elkarritzeta Debarri saioan. Iku-entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Eguena, 6

**Debagoieneko albisteak 22:15**

Bailaran gertatutakooa jarraitzeko aukera duzue GOITBko albistegieran. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo kazetariekin aurkeztauta.

Egubakoitza, 7

**'Behazulo' saioa, Goiartz Aranarekin 21:15**

Goiatz Arana kazetariaren eskuak, debagoiendarroi eragiten dizkigunen gaia aztergai Behazulo saioan, egubakoitzero.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

Jose Ramon**Bengoetxeari elkarrizketa**

Lege soziologia giza eskubideen zerbitzura bake prozesuetan udako ikastaroa egingo dute Oñatin. Hori dela eta, Jose Ramon Bengoetxea Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko zuzendari zientifikoa elkarrizketatuko dute.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Puntukako gidabaimenak izandako eragina**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Jose Maria Ruiz Urtxegi, Adegiko idazkaria**Herri Irratia**

FM 99.8

'Hondartzaz hondartza' | 10:00

Hondartzetako giroaren berri gozetzik

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Behazulo

14:15 Eltze beroa: Berdura egosia.

14:30 MI.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Munduari bueltaka.

15:30 MI.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Ilunpean: Javier Muguruza.

16:15 Klip@k.

16:30 MI.

16:45 Albiste aurrerapena

17:00 Didjerido: Oier Sarasua

17:30 Zera dio. Zabaleta eta Arretxe.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Berbaire.

18:15 Sustraia.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@k.

19:15 Harmailatik.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrik.

20:45 Berriak.

21:15 Jaiak: Eskoriatza, Aramaio, Elgeta.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Jaiak: Eskoriatza, Aramaio, Elgeta.

22:15 Berbaire.

22:45 Berriak.

23:15 Behazulo.

23:45 Albisteak.

00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Jazz.

14:15 Zera dio.

14:30 MI.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Elkartasun bideak.

15:30 MI.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Harmailatik.

16:15 Klip@k.

16:30 MI.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:00 Jazz.

17:30 M2. Danbaka. Sharon Stoner.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Erreportaje: Behiak belatzetan.

18:15 Munduari bueltaka.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@k.

19:15 Harmailatik.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrik.

20:45 Berriak.

21:15 Teknopolis.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Debarri: Eskoriatzako alkate. Juan Carlos Bengoarea.

22:45 Berriak.

23:15 Jaiak: Eskoriatza, Aramaio, Elgeta.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Jaiak: Eskoriatza, Aramaio, Elgeta.

00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:15 M2. Danbaka. Sharon Stoner.

14:30 MI.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Jaiak: Eskoriatza, Aramaio, Elgeta.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Jaiak: Eskoriatza, Aramaio, Elgeta.

16:15 Klip@k.

16:30 MI.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:00 Berbaire.

17:30 Zera dio. Zabaleta eta Arretxe.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Sustraia.

18:15 Teknopolis.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@k.

19:15 Didjerido: Oier Sarasua.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrik.

20:45 Berriak.

21:15 Berbaire.

21:45 Albisteak.

22:15 Didjerido.

22:45 Berriak. Deiane Arrieta.

23:15 Harmailatik.

23:45 Albisteak.

00:15 Emisio amaiera.

13:00 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

Bihurkorak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Behazulo.

14:15 Motzean.

14:30 MKT.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Iparorratza. Peru.

15:30 Mikrosaioa 1.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Didjerido.

16:15 Klip@k.

16:30 Mikrosaioa 1.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:00 Berbaire.

17:30 Eltze beroa. Berdura egosia.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Jaiak06. Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio. 1. zatia.

18:15 Jaiak06. Eskoriatza, Elgeta eta Aramaio. 2. zatia.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klip@k.

19:15 Ilunpean.

19:45 Albisteak.

20:15 Marrazki bizidunak eta zorion-agurrik.

20:45 Berriak.

21:15 Behazulo.

21:45 Albisteak.


22:15 Ilunpean.

22:45 Berriak.

23:15 Albisteak.

23:45 Albisteak.

00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean

"Herritarrek udaletxearekin dituen harremanak leihatila bakarrean egitea da Arreta Zeritzuaren helburua"

IGNAZIO LAKUNTZA |
ARRASATEKO ALKATEA
Berriak, 2006-06-29

</div



Ura ere, gure eskuetan dagoelako

Uraren Euskal Legea

Ura oinarrizko baliabidea da bizitzak aurrera egin dezan. Eskubidea da, bai, baina baita ondare mugatua ere.

Ondare hori babestu nahian, Eusko Jaurlaritzak Uraren Euskal Legea sustatu du, ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrean onartua.

Arau horri esker, uraren bestelako kudeaketa publiko integral bat ahalbidetuko da. Aprobetxamenduaren eta iraunkortasunaren arteko beharrezko oreka bermatuz. Beti ere, printzipio hauetatik abiatuz: parte-hartzea, gardentasuna, erantzukizuna, eraginkortasuna eta koherenzia.

Eta hau guztia, helburu garbi batekin: hain baliabide baliotsua dugun uraren erabilera eta babesa ondo uztartzea.

Ura ere, gure eskuetan dagoelako.

Informazio gehiago web orri honetan: www.ingurumena.net

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net

Gure esku dago



Goizean: eguzkia
Arratsaldean: eguzkia

Hamarrekoa

JABIER MUGURUTZA | MUSIKARIA

“Musika irakaslea etxera etortzen zitzaigun hiru anaioi, eta horrela hasi ginen”

Oihana Elortza

1. **Nola bizi duzue Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga Irunen?** Muga egon badago, nahiz eta ideologikoki kontrako pentsa. Gure abizenak ere mugarik eza adierazten du, baina afaltzeko hamar kilometro egin eta konturatzen zara beste mundu bat dela.

2. **Hendaiko edo Donostia hondartzara joaten zara?** Azalagatik, eguzkia horrenbeste ez zaidala komeni esan didate, eta aspaldian gerizpean ibiltzen naiz. Hala ere, gogoan dut umetan Hendaiko hondartzara joaten ginela. 12:00etan joaten ginen; hango bizilagunak bazkaltzera joaten ziren ordu horretan, eta bakarrik egoten ginen.

3. **Noren posterrak zentuen gelako paretan?** Arraroa izango naiz agian, baina nik ez nuen posterrik. Umetan, gela berean egiten genuen lo anaiok, Ferminek, Iñigok eta hirurok. Gero, gela bakarrera pasa ninduten, baina orduan ere ez nuen inoren argazkirkirik paretan. Anaiek, aldiz, bazituzten: musikarienak eta aktoreenak, adibidez.

4. **Noiz hartu zenitu lehen musika eskolak?** Gogoan erortzen irakaslea etxera zitzaigula musika irakastera, eta hiru anaioi ikasi genuen. Lehen akordeoia 5 urte-rekin erosi zidaten gurasoek.

5. **Gurasoek ere jotzen zuten musika instrumentik?** Ez, baina zaleak ziren. Gure amak, berriz, margotu egiten zuen.

6. **Umeendako kantuak argitaratzeko diskoe-txea sortu duzu. Aspaldiko gogoa zen hori, ezta?** Bai, ez naiz inoiz negozio-gizona izan, baina banuen hori egiteko gogoa, eta lortu dut azkanean.

7. **Zuzeneko kontzertuak ematen dituen kafe bat zabaltzea da beste ametsa. Nola dago proiektu hori?** Eragabat baztertuta. Madrilera joaten naizenean-eta, ikaragarri gusatzen zaizkit lokal horiek, eta gurako nuke antzerako bat zabaldu, baina etsita nago dagoeneko.

8. **Jokatzen duzu palan oraindik?** 32 urte inguru ntuenean irabazi nuen Euskadiko Txapelketa.



Musikaz eta literaturaz bizi da Jabier Mugurutza eta pribilegiatu sentitzen da. Horrez gain, Radio Euskadi irratian eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian kolaboratzen du. Irungo alarde mistoan hartzen du parte hasieratik neskekin batera, eta horrek buruhauste batzuk ekarri dizkiola onartu, baina baita hasieratik argi zuen kontu bat zela ere.

Harrezkero jokatu dut, baina 40 urte bete ntuenean utzi nuen.

diskoak trukatu egiten genituen lehen lagunen artean.

9. **Gordeta dituzu erosita-komusika disko eta liburu guztiak?** Liburuak bai, eta biniloak ere. Hala ere,

10. **Zein da hurrengo proiektua?** Leonard Cohen-en omenaldian parte hartzea.



Biharamuna

Iñigo Biain

O jogo bonito

Lipatu egiten dut! Nire inguru an inork ez omen zuen nahi Espainiako selekzioak frantziarren aurkako partidua irabazterik. Iparraldeko lagunek, aldiz, Frantziak galtzea nahiago zuten (berdinketa infinitua posible al da mundial batean?). Eta bitartean, euskal kaleak hutsik ageri ziren partiduan orduan, bi estatuetako kaleak bezalaxe. *Xabi Chavi* bilakatu da betirako Ebrotik behera eta Aturritik gora, eta mundial hau etxeratzen digun TB kateko *Quiquek* lehiaketako “harri bitxia” atera zuen bere eztarritik: Aurtengo Espainiako selekzio “bitxian” argentinatar bat (**Pernia**), beltz bat (**Senna**) eta euskaldun bat (**Chaví?**) zeudela ... Flipatu egiten dut! Frantziako selekzioa ere beltzez eta jokalari kolonialez josia zegoen, baina euskaldunik bat ere ez (kolonialismo selektiboa ote?). Gainera, “furia gorriak” azkar jarri zien frantziarrei jubilatu etiketa, selektiboki jubilatu beharreko jokalari kolonialen etiketa ... Baina jubilatzea dagoen abi-zen kuasiekaldundun jokalari kuasikolonial batek (gurasoak algeriarra ditu) dena argitu zidan: **Zidanne**. **Zinedine** familia “marjinal” batetik ateratako frantziar “berri” bat da, eta frantsesa eta arabiera ez ezik, gaztelera ere ondo erabiltzen du... Beraz, euskara ere laster menperatuko luke, eta bere izena asko aldatu gabe, erraz bilaka dezake **Lamikizek** Athletic-eko jokalari... Izan ere, ez dago oso urrutti Zinedine Zidanne “Zin egin zidan”-etik, ez?

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestienaren izena (Abestiarria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolarri (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amoro (Kardadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okerutu (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruz) | **DUB**
Egungero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Elos dicens miera, nosotros amem (La Colla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken?) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

WEBGUNEAN → www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

LOGOAK (SMS 1)
KODEA



OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarririk den eskaiteen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari

Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio guzia.

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuartzeko, beharrezko GPRS sistema aktibatuta iratza. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure horizontzailearekin harremanetan. Alta ematea doa da eta Kb jaitsiera bakanik ordaindu beharko duzu. Kasu gutietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.

* Euskaltelef. deitu 900 84 02 00 telefona, / Vodafone: deitu 123-ml / Movistar: deitu 609-ml.

3. **ZALANTZAK:** Edukiak zalantzak duzula, jari gurekin kontaktua: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefona.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurriara egin dituzkegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilitzaleak eskuratzeko dezelatela nahi baduzu, jari gurekin harremetan eta deitu 902 01 21 48 telefona.